

Herririk Herri |2|

Eragileen parte-hartzeagaz dihardute Berdintasun Plana osatzen Durangon

Ekonomia |10|

Turismo Bulegoak Durango ezagutzera eman gura du Katalunian




Berbaz |9|

P. Zubizarreta: "Historia hurbila baina ezezaguna kontatu gura izan dugu"

Etorkin kopurua bibidertu egin da hiru urtetan Zaldibarren

- > Zaldibarko Udalak etorkinen egoera ezagutzeko inmigrazioaren gaineko diagnostikoa egin du
- > Azterketaren arabera, inplikaturako eragileen arteko koordinazioa hobetu beharra dago

3



K.Aginako

'Jules Vernereren azken abentura': Gorakada taldearen estreinaldi berria

KULTURA • Apirilaren 17an, Zornotza Aretoan aurkeztuko du Gorakada antzerki taldeak bere azken proposamena. Sei urtetik gorako umeei zuzenduriko antzezlanak datozen asteetan eskualdeko beste herri batzuetan ere ikusgai izango duguna. Alex Diaz obraren zuzendariagaz berbaz jardun dugu.

13

Herri arteko pilota txapelketa hasiko da asteburuan

KIROLAK • Abadiño, Atxondo, Berriz, Iurreta eta Durangok osatuko dute eskualdeko ordezkari Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketan. Durangok eskuz ez eze zetan ere parte hartuko du. Berrizek gaur ekingo dio etxean Bilboren kontra. Iurretak eta Abadiñok ere etxean jokatuko dute domekan, Lekeitio eta Gallartaren aurka.

24

Bizkaiklasik txirrindulari lasterketa, bihar, Elorrioko harbidean

Elorrio • Elorrioko Txirrindulari Elkarteak Bizkaiklasik txapelketa antolatu du. Kadetei zuzendutako lasterketak San Agustingo harbidean zehar eramango ditu txirrindulariak. Pedro Horrillo da probaren aita-bitxia. Lasterketak 116 txirrindulari batuko ditu; gehienak mutilak badira ere, nesken talde bik parte hartuko dute.

23

•Iurreta

Osasun Zentroa zabaltzeko lanak uda aurretik hasi guran

4

•Mallabia

Herritarrek Plan Orokorreko lan-ildoak lantzen dabilta

6

•Elorrio

Elorriak bere artiboak herritarren esku utzi ditu

7

•Abadiño

Muntsarazko 69 etxe uda eta gero zotz egingo dituzte

8



KOART 903

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxa: 94 682 68 79
Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Hainbat eragileren laguntzagaz osatu dute lehenengo Berdintasun Plana

Urtean urteko plangintza eramango dute; aurtengo ekintzek, batez ere, sentsibilizazioa dute oinarri

azko ekainean Durangoko udalbatzarrak lehenengo Berdintasun Plana onartu zuen. Harrezkero, Berdintasun Sailak eragile ugarigaz beharrean jardun du plana gorpuzteko, eta asteon eman dute osatutako planaren berri. Laster herritarren aurrean aurkeztuko dute.

Goiztidi Diaz Berdintasun Saileko zinegotziak azaldu duenez, plana oinarri hartuta "urtean urteko ekintzak" antolatuko dituzte. Urte amaieran "egindako ekintzen ebaluaketa egingo dugu, eta hortik ateratako ondorioekin hurrengo urteko ekintzak zehaztuko ditugu".

Berdintasun Planaren eraketa "prozesu parte-hartzaile" baten ondorioa dela azaldu zuten. Prozesu horretan zortzi taldek eta 74

lagunek parte hartu dute. Horietatik 49 emakumezkoak dira, eta 25 gizonezkoak. Azaldu zutenek, ahalik eremu zabalenetako kideak batzen saiatu dira: kultur, kirol, ingurugiro... arlokoak: "Beraz, Udalez gainera, herritarren planaren osaketan parte hartu dute".

"Eragileek planaren osaketan ez eze, garapenean ere parte hartu dezaten gura dugu"

Era berean, planaren garapenean Andraguneak eta Berdintasun Kontseiluak izango duten garrantzia azpimarratu zuten. Kontseilua Durangoko hainbat elkarte feministek (Andereak, Bilgune Feminista eta Emakumearen Promoziorako Zentroa) osatu dute.



Laster Berdintasun Plana herritarren aurrean aurkeztuko dutela aurreratu zuten.

Planaren eraketan parte hartu duten eragileen eskakizun nagusia aintzat hartuz, aurtengo ekintzek sentsibilizazioa izango dute oinarri. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko kontzientziazio kanpainak egingo dituzte; Berdintasun Sailekoek bultzatuko dituzte alderdiekin, Berdintasun Kontseiluagaz eta Andraguneagaz adostuta.

Jakinarazi dutenez, asteon bertan herritarren mahaia lanean hasi da. Elhuyar Aholkularitzaz erbitzuak egin du bitartekari lana herritarren eta Udalaren artean. Mahai horretan Geu Be elkarte, Centro Palentino, Trasplantatutako Pertsonen Elkarte, Gurutze Gorria, Zabaltzen Sartu, Landa XXI elkarte eta norbanakoak daude. Urtean zehar hainbat bider

batuko dira: "Planaren diagnostian ez eze, herritarrek garapenean ere eragina izan dezaten gura dugu", azaldu zuen Diazek.

Burutuko dituzten ekintzen artean lengoaiaren erabilera ez sexistaren inguruko gida-liburuak udaletxeko langileen artean banatzea dago. Beste ekintza batzuk dagoeneko egin dituzte; Hiri Debatuaren Mapa, esaterako. ■ J.D.

Aurten hasiko dira Aramotz auzoko etxeak eraikitzen

PSE-EEK jakinarazi duenez, alderdi sozialistak Aramotzen eraikitzea aurreikusita dauden 52 etxebizitzaren prozesua "bizkortu" du te, eta "aurten" hasiko dira lanak: "Eusko Jaurlaritzak 2010eko aurrekontuetan diru-atala gorde du etxebizitza horien exekuzioari hasiera eman dakion", adierazi du Pilar Rios Durangoko udalbatzarrereko zinegotzi sozialistak.

Horrez gainera, PSE-EEK gogoratu duenez, EAJgaz aurtengo aurrekontuetarako lotu duten akordioan "Arripausuetako eta Faustegoieneko partzeletako proiektuei lehentasuna ematea negoziatu dugu". Horrela, sozialisten helburua "partzela horietako obrak 2010a amaitu aurretik hasi daitezten da".

Amaitzeko, Durango Eraikitzen elkarte publikoa "baliabideekin hornituko dugu, babeseko bizilekuak sustatuz".

Mirugainera igoera

Bestalde, Errepublikaren Eguna ospatzeko bihar Mirugainera igoiko dira. Eguaztenean, PSE-EEren egoitzan Roberto Lertxundik hitzaldia eskaini zuen. ■ J.D.

'Oporrak bakean' kanpaina hasi du Herria elkarteak

Udan ume sahararrak eskualdean hartzeko programan izena emateko epea zabalik dago

Saharako errefuxiatuen kanpamenduetako umeak udan Durangora ekartzeko programaren kanpaina abiatu du Herria auzo elkarteak, Udalaren laguntzagaz. Zortzigarren biderra da honakoa. Programan izena ematera deitu dituzte herritarrek.

Aljeriako Tindufen errefuxiatuta dauden saharar umeentzako laguntza eskatu du Herria elkarteak. Zortzigarren urtez, bertako umeak udan hona ekartzeko programa ipini du martxan, *Oporrak bakean* lemapean. Izena emateko epea zabalik dagoela azaldu dute Herrikoek.

Hainbat helburu ezartzen dizkiote programari. Alde batek, udan "45-55 graduren bueltako tenperaturak ekidin ahalizatea". Egonaldiaren bitartez, elikadura egokia eta azterketa medikua

Umeen egonaldiak ekainaren amaieran hasi eta irailaren hasieran amaituko dira

jaso ahal izatea ere gura dute. Amaitzeko, "hemen dauden artean euren herrian dituzten gabeziak gozatzeko aukera ematea" ere ipini dute xedetzat.

Egonaldia ekaina amaieran edo uztaila hasieran hasiko da, eta abuztu bukaeran edo iraila hasieran amaitu. Umeak jasotzek ez

Egonaldiaren bitartez, besteak beste, azterketa medikua eta elikadura egokia jasoko dute

du gastu ekonomikorik suposatzen; mantenua bakarrik. Familiak zein norbanakoek hartu ahal izango dituzte umeak etxean; hori bai, durangarrek lehentasuna izango dute. Bestalde, egonaldian zehar ezingo dute estatu espainiarretik irten.

Herria elkarteak azaldu dutenez, izena emateak ez du derrigortzen umea hartzea; informazioa jaso eta gero konfirmatzeko aukera dago. ■ J.D./M.O.

GARAI

Webgunea prestatu du Udalak

Eusko jaurlaritzak emandako dirulaguntza bati esker, Garaiko Udalak webgunea osatuko du aurten. Orain arte kontratatzaile-profilaren zerbitzua eskaintzen zuen bakarrik, eta hemendik aurrera atal gehiago zein diseinu berria izango ditu.

Landa inguruneen sustapen eta garapenerako laguntza ematen duen Jaurlaritzako Erein programatik jasoko du dirua Udalak. Proiektuaren kostua 12.755 eurokoa izango dela aurreikusi dute, eta dirulaguntza 6.377 eurokoa da. Modu horretara, webguneak itxura berria izango du, eta hainbat zerbitzu ipiniko dira martxan herritarrei informazioa emateko helburuz. Argitu dutenez, instantziak, bandoak eta ordenantzak kontsultatu ahal izango dira, besteak beste. ■ M.O.

Jaurlaritzako Erein programaren dirulaguntza 6.377 eurokoa da

DURANGALDEA

Beasain-Durango proiektuaren alegazio epea

Beasain-Durango autobideak Gerediaga-Elorrio zatian Elorriori, Atxondori, Abadiñori eta Berrizi eragingo die. Herri hauetako udalek jaso dute dagoeneko autobidearen proiektuaren berri eta bidalitako dokumentuak aztertzen dihardute orain.

Herritarrendako, proiektua ikusi eta alegazioak ipintzeko 30 eguneko epea zabaldu dute. Elorri maiztaren 12ra arteko epea dagoela azaldu dute bertako udal arduradunek.

Udalek alegazioak jartzeko bi hilabeteko epea daukate. Proiektuak eragingo dien udaletako arduradunen berbetan, "teknikariak Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako proiektuaz aztertzen dabilta, alegazioen bat ipini behar dugun aztertzeko".

Abadiñoko Gaztelua auzoan proiektuak izango lukeen eraginak "kezka" sortu zuela bere sasoian azaldu du Jose Luis Navarro alkateak, baina inguru horretako zati handi bat lurpetik joango da eta oraindik alegaziorik jarri ala ez aztertzen dabilta. ■ J.G.



ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak herrian bizi diren etorkinen azterketa eta diagnostikoa egin du azken hilabeteetan, etorkinen populazioaren errealitatea zein den zehatz jakiteko asmoz.

Zaldibarren azkeneko hiru urteetan bibidertu egin da etorkinen kopurua: gaur egun 210 etorkin daude errolatuta; 2006an, berriz, 103. Gehienak Marokotik etorritakoak dira, ondoren Portugaldik eta Errumaniatik.

Zaldibarko Herritarren pertzepzio orokorra etorkinak herrian "gehiago integratu" behar direla da

Inplikaturiko eragileen arteko koordinazioa hobetu beharra dagoela ondorioztatu dute egindako azterketan

Taibide enpresak burututako azterketako datuen arabera, etorkinak udalerriko populazio osoaren %6,8 da; Euskadin dauden etorkinen batezbestekoa (%6,1) baino apur bat gehiago.

Txostenean, bertako eta kanpotik etorritako 40 pertsonen tes-

tigantza eta iritzia ere jaso dute herrira heldu eta integrazioaren prozesuaren inguruan. Azterketaren arabera, atzerritarren ardura nagusiak lana eta etxebizitza lortzea eta euren administrazio-egoera legezkatzea dira, baina Zaldibarren "gustura eta lasai" daude.

Zaldibarko bertako herritarren pertzepzio orokorrari dagokionez, "etorkinak udalerrian gehiago integratu beharko liratekela" adierazi dute, eta "oso ontzat" jo dute eskolan umeek kultura ezberdinekin elkarbizitzan egoteko aukera.

Etorkinekin behar egiten duten erakundeek eta zerbitzu publikoek atzeman dituzten ahulguneen artean, baliabideen eta pertsonalespezializatuaren eskasia eta inplikaturiko agenteen arteko koordinazio falta dago. Bestalde, bi norabideetan lan egitea beharrezko ikusten dute, hau da, "etorkina hartzen duen gizartearen sentsibilizazioa eta etorkinen egokitzapena eta integrazioa bultzatzea". ■ G.A.

"Bi norabidetan lan egin behar da, gizartea sentsibilizatuz eta etorkinen egokitzapena eta integrazioa bultzatuz"

Bibidertu egin da, azken hiru urteetan, Zaldibarren bizi diren etorkinen kopurua

Zaldibarko Udalak etorkinen azterketa eta diagnostikoa egin du



Orain hiru urte Zaldibarko Caritasek kultur arteko jaialdia antolatu zuen.

BERRIZ

Zabortegia zigilatu arte geldirik dago Berrizburu aisialdi-gunea

Garbikerren klausura proiektua Eusko Jaurlaritzaren oniritziaren zain

Berrizburu parkearen urbanizazioa geldirik dago Garbiker enpresak lehen zegoen zabortegi zahararen gaina isolatu eta zigilatu arte. Jabier Azpitarte Berrizko alkateak azaldu duenez, "Garbikerren klausura proiektua Eusko Jaurlaritzan dago, orain urtebete, Ingurugiro Sailaren oniritziaren zain". Lanak urtebeteko atzerapenagaz doaz, eta Gorka Camara hirigintza zinegotziak azaldu duenez, "2011n martxan jartzea aurreikusi dugu", beraz lan guztiak amaitzek "luze joko du, gura genukeen baino luzeago". Oraingoz, Udalak bi frontoi eraiki ditu; bat horma bikoa eta bestea batekoa, baina herri-kiroletarako gunea Garbikerrekegingo du estaldura eta zigilua egin ondoren; hori amaitzean, Udalak gunea urbanizatu eta sarbideak eta apartakalekuak egingo ditu.

Zabortegia 2008ko urtarrilean itxi zuten, eta lanak amai-

Herri kiroleterako gunea egingo dute bi hektareako lautadan, maldan berdegune zabala

tzean, Jabier Azpitarte alkateak azaldu legez, "bi hektareako lautada eta malda zabalean aisialdirako berdegunea irabaziko dugu, oinez edo bizikletaz ibilbide askoz". Herri-kirolen gunea, adin eta umeentzako tokia eta ortu ludi-koa ere egongo dira. ■ G.A.



Berrizburuko aisialdi-gunean frontoiak bakarrik daude.

Denboraren Bankuari bultzada eman gura diote

Zerbitzu trukea "astiro" doa, baina ekimenagaz aurrera jarraitzeko prest daude antolatzaileak

Ogi marokoarra egitea gaztelerazko klase batzuen truk: hori da Denboraren Bankuan elkartrukatu diren zerbitzuak. Izan ere, administrari batek zerbait berezia eskaini gura zien lagunei, eta Denboraren Bankuan beste lurralde batzuetako janari errazak eskaintzen direnez, zerbitzu hori eskatu zuen, trukean berak, gaztelerazko eskolak eman eta paperekin laguntzearen truk.

Orain bost hilabete ipini zuten martxan Denboraren Bankua Berrizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Helburua parte hartzen dutenen artean denboraren elkartrukea sustatzea eta zerbitzuen elkartrukea bultzatzea da.

Gaur egun 12 pertsona daude eta 9 zerbitzu eskaintzen dituzte Denboraren Bankuan; unean uneko ume eta nagusien zaintza, orrazkerak egitea, medikutara edo erosketak egiteko laguntzea, jostea, laguntza informatikoa,

garraioa, umei eskolako lanetan laguntzea... Hala ere, elkartrukea "astiro" doala aipatu digu ardurdunetako batek. Izan ere, "hasieran jendeari parte hartzea kostatzen zaio", baina "ekimen honek aurrera jarraitzeko asmoz eta zerbitzuen elkartrukeari bultzada eman guran" kanpaina berri bat jarri dute martxan, karteletz gainera 3.000 diptiko inguru banatu dituzte postontzietan ekimenaren berri emanez. ■ G.A.

Denboraren Bankuan 12 parte-hartzaile eta 9 zerbitzu eskaintzen dituzte

Kanpaina berri bat jarri dute martxan, karteletz gain 3.000 diptiko inguru banatu dituzte

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinak

DIURRETA

Osasun Zentroa zabaltzeko lanak uda ostean hasiko ditu Osakidetzak

Anbulategi alboko lokalagaz, 80 metro karratu gehiago izango ditu lanen ostean Osasun Zentroak

Orain urtebetetik Iurretako ambulategian lanaldi erdiz diharduen mediku berriaren etorreraren ondorioz ambulategia txiki geratu dela eta, handitze-lanak burutuko dituzte, asteon Udalean azaldu dutenez.

Mediku berriak kontsulta pasatu dezan lekua, eta pediatria sailaren kokapena egokitzera bideratuko dute irabaziko den espazioa. Pediatria zerbitzuan, besteak beste, egongela berri bat atonduko dute handitzeagaz.

Bestetik, barruko zerbitzurako, ambulategiko langileentzako egongela bat eta liburutegi txiki bat egokitzeko helburuagaz ere egingo dituzte ambulategiko lanak.

Osasun Zentrotik bertatik egindako eskaria izan zen ambulategiaren aldameneko lokala osatu

sun zerbitzuari ematea, Iñaki Totorikaguena alkateak jakin eragin digunez. Espazio gehikuntza 80 metro karratukoa izango dela aurreratu digu alkateak. Obren ondoren, "340 metro karratu inguru izango dira erabilgarri", azpimarratu du alkate jeltzaleak.

Pediatria zerbitzuan egongela bat eta kontsulta berri bat egiteko erabiliko dituzte, besteak beste, 80 metroko

Anbulategi ondoko lokala laga du Udalak, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaaren ardurara izango dira hemendik aurrerako beharrak. Aurreikuspenen udan hasiko dira ambulategi aldamenen lanean.



Handitze-lanak egin eta gero, 340 metro karratuko ambulategia izango dute lurretan.

Etorkizunera begira

Uda honetan ekingo diete ambulategia zabaltzeko lanei, eta etorkizun hurbilari buruz galdetu gura izan diogu Totorikaguena alkateari: handitze lan hauek egin arren espazioa txiki geratzen denerako beste kokalekuren bat aztertu ote duten itaundu diogu: datozen

Anbulategi alboko lokala lagadio Osakidetza Udalak, eta aurreikuspenen arabera, uda aurretik hasiko dituzte lanak

urteetan herria eten barik haziko dela, eta bost edo sei urte barru azterketa bat egin beharko dela aurreratu digu Totorikaguena jeltzaleak: leku egokiena zein izan litekeen zehaztu barik dutela, baina Udalaren helburua ambulategia herrigunearan kokatzea litzatekeela aurreratu digu. ■ I.E.

Guraso eta hezitzaileei zuzenduriko berbaldiak apirileko lau egunetan

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeen guraso eta hezitzaileei zuzenduriko hitzaldiak

Apirilaren 19, 20, 26 eta 27an, Ibarretxe kultur etxean izango dira Haur edo Lehen Hezkuntzako guraso eta hezitzaileei zuzenduriko berbaldiak: 18:30etik 20:00etara izango dira hitzorduek.

Guraso eta hezitzaileen interesekoak izan daitezkeen lau gai buruzkoak dira doako berbaldiak, eta honako izenburuagaz aurkeztu dituzte: *Nola finkatu autoritatea gure seme-alabekin?; Teknologia berrien eragina familian: telebista, internet, mobila, bideo-jokoak, mp3; Nola jokatu eta hezi kontsumoaren gizaratean; eta Nola jokatu gure seme-alabekin irudiaren eta itxuraren gizaratean.*

Berbaldien izenburuetan islatzen diren gai horietan oinarrituta, gogoeta egitera bultzatuko dituzte parte-hartzaileak, eta jarraibide batzuk ere emango dizkie berbaldien emaleak.

Juan Carlos Alonso psikologoak izango du berbaldien ardurara, eta autoestimua, beharren eta desioen, eta autoritatearen gaineko azalpenak emango ditu, besteak beste, apirileko lau egunetan izango diren berbaldietan.

Interesa daukaten herritar guztiak parte hartu ahal izan dezaten, berbaldiek irauten duten bitartean haurtzaindegi zerbitzua egongo dela aurreratu dute. ■ I.E.

Juan Carlos Alonso psikologoak izango du berbaldiak gidatzeko ardura

Hitzaldiek irauten duten bitartean haurtzaindegi zerbitzua izango da aukeran

Iurretarren erabakiz aukeratuko dute aurten San Migel jaietako kartela

Ekainaren 18ra arte aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek euren kartel proposamenak

Irailaren 28tik urriaren 3ra arteko San Migel jaiak iragarriko dituen kartela hautatzeko, herritarren parte-hartzea eta botoa eskatuko du Jai Batzordeak, lehenengo aurten. Ekainaren 18ra arte dago proposamenak aurkezteko epea, eta Ibarretxe kultur etxean jasotzen dituzten lanak erakusketan jarriko dituzte ekainaren 21etik 25era.

Ekainaren 21etik 25era egingo dute aurkeztu diren lanen erakusketa Ibarretxen

Erakusketaren egun horietan, antolatzaileek azaldu dutenez, 18:00etatik 19:00etara, erakusketa bisitatu, proposamenak begiratu eta gustukoak diren kartelaren alde bozkatzea gonbidatuko dituzte herritarrek.

Lehiaketara aurkeztu diren kartel guztiak, *San Migel jaiak 2010 Iurretara-Irailaren 28tik Urriaren 3ra* esaldia izan beharko dute idatzita; gainera, 70 zm-ko altuera eta 50 zm-ko zabalera izan behar dira parte-hartzaileek bidaltzen dituzten kartelak. Baldintzok betetzen dituzten parte-hartzaileek, 500 euroko lehengo saria jaso ahal izango dute.

Erakusketara hurreratu eta bozka ematen duten iurretarren botoen bitartez, 2010erako San Migel jaietarako aukeratua izan den kartelaren berri ekainaren 28an emango du Jai Batzordeak, aurreratu dutenez. ■ I.E.

Ekainaren 28an emango dute jakitera jokoan dagoen 500 euroko saria nork daraman

ATXONDO

Gidatzerakoan erregaia zelan aurreztu ikasgai

Apirilaren 24an gidatze ekonomikoaren inguruko ikastaroa eskainiko du Energiaren Euskal Erakundeak Atxondon.

Gidatzerakoan erregai gutxiago kontsumitzeko zeregin daitezkeen erakutsiko dute ikastaroan. Teoria emateaz gainera, ariketa praktikoa ere egingo dute. Ibilbide berean modu batera edo bestera gidatuta erregaia zelan aurrezten den ikusiko dute.

Ikastaroa apirilaren 24an emango dute. Izena emateko azken eguna hilaren 21a da

Lau orduko ikastaroa izango da hilaren 24koa; goizeko 10:00etatik 14:00etara emango dute. Ikastaroan parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar. Izena emateko azken eguna apirilaren 21a da, eta gura duenak udal bulegoetan edukiko du horretarako aukera (94 682 1001). ■ A.U.

CENTRAL FORESTAL
35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit
Nervión
Pinuarekin egin daitezkeen paperik onenak

Smurfit
ibersaac
Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak!

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com

LORAZAINTZA



Motozerra



Lorezaintzarako traktorea



Zulagailua



Gasolinazko motordun aitzurra

ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



Mini zamagailua



4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini hondeagailua 1.800kg

JASOGAILUAK



Eskurga



Maneiagailua



Beso artikulatuak



Artazia

www.alkimax.com

MALLABIA

Asturiasera bidaia antolatu du Jubilatutako Elkarteak

Asturias osoa bisitatzeko bidaia antolatu du herriko Jubilatutako Elkarteak. Irteeramaiazaren 16tik 21era bitartean egingo dute. Bidaia 50 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Hala ere, edonor apuntatu daitezke ekintza honetara, ez dago jubilatua izan beharrik. Jubilatutako Elkarteak kide izan ez arren, aukera dago Asturiasera egingo duten bidaiara joateko.

Izena emateko prezioa 248 eta 298 euro artekoa izango da. Joango den jende kopuruaren arabera prezioa aldatu egiten da. Kopuru honetan pentsio osoa, edariak, txangoak eta gainerako gastu guztiak batuta daudela azaldu digute elkarteak arduradunek. Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 18a, domeka, izango da. Interesa daukatenak Jubilatutako Etxera hurreratu eta apuntatu daitezke; bertan emango diete bidaia-aren gorabeheren berri. ■ J. G.

Izena emateko azkeneko eguna apirilaren 18a da, domeka, Jubilatutako Etxean

Plan proposamena uda aurretik herrian aurkeztuko dute

Udaleko Herritarren Parte-hartze Batzordeak Plan Orokorren lan-ildoak erabaki ditu

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra herritarren parte-hartzeagaz erredaktatzen dabil. Iazko udazkenean Udaleko Herritarren Parte-hartze Batzordeak bultzaturik hainbat taldetan eztabaidatu eta adostu zituzten

Plan Orokorrean hartzen dituzten erabakiak talde erredaktoreak idatzi beharko ditu

Mallabiko Plan Orokorreko izan zitezkeen ildo nagusiak (lur urbanizagarriak, ez urbanizagarriak, azpiegiturak, landa-nukleoak, etxebizitza, industriaguneak...). Urtarrilaren 19an Udaleko udalbatzan onartu zuten, aho batez, Plan Orokorreko Aholku Batzordea osatzea eta bere funtzionamendurako arau-

dia. Batzordeak Plan Orokorreko dokumentuak aztertzeaz gainera, "ziurtatu egin behar du mallabitarrren parte-hartzea", dio alkateak. Talde honetan herriko hainbat alderdi politiko, sindikatuak, teknikariak eta herriko kirol eta kultur elkarteak ordezkatuta daude. Udalean "gustura" daude taldearen lanagaz. "Oso martxa onean dabilta lanean, talde honetako kideek ez dute hutsik egiten, oso dinamikoa eta bizia da. Hartzen dituzten erabakiak planeko talde erredaktoreak idatzi beharko ditu".

Uda aurrean jendaurrean aurkeztea aurreikusi dute. Ondoren, alegazio epea zabalduko dute. Planean eztabaidatu dituzten gaien artean 2006ko Lurraren Legeak landa-nukleoak "desagerrarazteko" izango duen eragina eta etxebizitzaren eta industriaguneen gaiak izan dira. ■ J.G.



Mallabiko planeamendua erabakitzen dabilta. Judith Fernandez

IZURTZA

Erabilera anitzeko eraikina egiteagaz, gehienak ados

"Herrian falta diren hainbat zerbitzu eskainiko dituen erabilera anitzeko eraikina" altxatzeko aukerari buruz izurtzarrek duten iritzia-ri buruz galdetzeko, 80-90 etxetan inkesta banatu zuen urte hasieran, Gobernuaren aldizkariagaz batera. *Udal Gobernuak proposatzen duen eraikinaren beharra ikusten duzue? zen herritarrei luzaturiko galdera, eta Gobernu Taldeak azaldu duenez, baiezkoa izan da jaso dituzten erantzunen %95. Azken asteetan Udaletxean 30 erantzun inguru jaso dituztela ere esan dute.*

Udaletxean 30 erantzun inguru jaso dituzte, eta %95 omen dago proiektuaren alde

Erabilera anitzeko eraikinarentzako Gobernuak aurriekusitako zerbitzuez — medikuaren kontsulta, gimnasioa, liburutegia... — gainera herritarrek besteren bat faltan botazen ote duten ere galdetu zuen Gobernuak, eta hainbat erantzun eta ekarpen jaso dutela azaldu dute. ■ I.E.

OTXANDIO

Eredu iraunkorrean sakontzeko ildoak jakinaraziko dituzte

'Otxandio maite dugulako' ekimenaren baitan Motxotegiko proiektu eolikoa kritikatu dute

Bihar, 14:00etan, *Otxandio maite dugulako* ekimenaren barruan, Otxandio iraunkortasunaren bidean ipintzeko asmoa duten ingurumenaren arloko lau ildo estratejiko nagusiak plazaratuko dituzte. Bultzatzaileen esanetan, "neoliberalismo basatiak inoizko desoreka sozial handienak sortu ditu, eta lurra krisi ekologiko larria eraman du". Horren adibide legez, AHTa eta lurralde zati egitasmoa ipini dituzte, esaterako.

Eredu horri "alternatibak" ipintzeko sasoi dela diote, eta Otxandio iri lotutakoak plazaratuko dituzte. Lehenengoak uraren ziklo integralaren kudeaketa iraunkorra du helburu. Erreken eta pantanoen ekosistemak berreskuratzeko hirulehentasan finkatu dituzte: errekatik hartzen den ur emaria gutxitzea, ur-

sarean egon daitezkeen ihesak murriztea, eta urzikinak tratatzeko sistema ekologikoa ezartzea.

Subiranotasun energetikoaren bidean ikerketa bi hasiko dituzte; basoek sortzen duten biomasaren aprobetxamendua eta herrian sortzen den materia organikoagaz konposta eta biogasa egitearen ingurukoak.

Beste ildo batek landa-lurra antolatzea eta babestea du helburu, ondare naturalak zaintzeko bidean. Amaitzeko, hondakinak kudeatzeko hainbat sistema aztertuko dituzte.

Asmo horiek sortu berri den Herritarren Kontseiluan eztabaidatuko dituzte, herritarren parte-hartze zuzenaren mesedetan. Kontseiluan erabakitako proiektuak praktikan ipintzeko konpromisoa hartuko dute. ■ J.D.

Euskalgintzaren inguruan jardungo dute martitzenean

Udal Euskara Batzordeak *Otxandion salda badago* izeneko mintegia antolatu du martitzenean, 19:00etan, Kultur Etxeko aretoan. Mintegi horretan euskaren erabilerean inguruan kezkatuta dauden otxandiar guztiak batu gura dituzte.

Euskara Batzordeak 2010erako aurreikusitako dituen ekintzen berri emango du lehenengo eta, ondoren, Otxandio-

Besteak beste, Euskara Batzordeak urteko ekintzen plangintza azalduko du

ko euskalgintzako jardunaz den artean gogoeta egitea du helburu Euskara Batzordeak. Horrez gainera, euskalgintza orokorrean jorratzen hasi den bide berrien inguruko bideo bat ere ikusi ahal izango da martitzen arratsaldeko mintegi horretan; 19:00etan hasiko dute eta 20:30 inguruan amaituko da ekimenaren antolatzaileek jakinarazi dutenez. ■ J.D.

Udaberri Jaia ospatuko dute zapatuan

Antolatu gabeko gazteria bizirik gabeko herria lelopean, Udaberri Jaia antolatu du zapatuan Otxandioko Gazte Asanbladak. Egun osoan zehar egingo dituzte ekitaldiak.

11:30ean gazte asanbladen arteko eztabaidak antolatu dituzte. Goiza hainbat gairen gainera hausnarketan eman ondoren, 13:30ean puzzle erraldoia egingo dute, eta gero bertso aldarrikapen poteoan irtengo dute.

Herrian zehar giroa alaitu ondoren, 15:00etan, bazkaritara batuko dira eta segidan kantu-jokoak egingo dituzte. 19:00etan kalejiran irtengo dute, talde sorpresa batez.

Udaberri Jaia amaiara emateko kontzertuak antolatu dituzte: Emon eta Akerbeltz taldeak eskainiko dute zuzeneko Gaztetxean. ■ J.D.

Gauean Emon eta Akerbeltz taldeek joko dute Udaberri Jaia barruan

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

AZKARGI
GARBIKETAK
Bulego eta Industria mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar
Goietan, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 94 682 09 91

MOMOTXO
TABERNA
Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85



ELORRIO

Elorrixak 27 urtean batutako artxiboak eskuragarri ipiniko dituzte laster

Liburu, dokumentu, kartel eta abarren artean 3.000 bat aleko artxibategia du ekologia taldeak

Martitzenean hitzarmena sinatu zuten Elorrioko Udalak eta Elorrixa ekologia taldeak (1983an sortua), azken honek sortu zenetik hona pilatu duen artxibategia elorriarren eskura ipintzeko. Liburu, dokumentu, kartel, DVD eta antzeko guztiak batuta, "3.000 bat aleko artxibategia daukagu", Agustin Garcia Elorrixako lehendakariak sinaduraren egunean azaldu zuenez. Asmoa ekimena maiztean mar-tzan jartzea da.

Iturri kulturguneko liburutegiko ordenagailuetan Elorrixaren artxibategia kontsultatzeko aukera egongo da laster. Gero, dokumentu edo libururen bat kontsultatu edo maileguan hartu gura duenak, aukera bi dauzka: Elorri-

xi abisua emango dio, eta azken hauek egingo dute gainerako gestioa. Garcia-ren esanetan, "mota askotako materiala" dute artxibategian: "Dagoeneko desagertuta dauden hainbat elkartetako doku-

Liburutegian bertan, txoko bat atondu eta ingurugiroaren gaurkotasuneko aldizkariak ipiniko dituzte

mentuak ditugu, esaterako. Horrez gainera, ingurugiroaren arloan ohiko zabalkundea duten aldizkari eta liburuez gainera, teknikoagoa den materiala ere aurkituko du interesatuak. Biodibertsitatearen, energia berriztagarrien eta antzeko gaien inguruko informazioa jaso daiteke".

Gaurkotasuneko aldizkariak Horrez gainera, liburutegian ingurugiroaren gaineko gaurkotasuneko aldizkari eta liburuak jasoko dituen txoko bat egokituko dute. Horrela, gaurkotasuneko informazioa kontsultatzeko aukera izango dute bisitariek. ■ J.D.

Liburutegiko ordenagailuetan dokumentu guztien zerrenda kontsultatu ahal izango da

xak astean bi-hiru egunetan ordu-tegi finkoak ipiniko ditu, eta hara joan daiteke. Bestela, liburuzainari jakinarazi diezaioke gura duen liburuaren berri; honek Elorrixa-

San Juan kaleko kurutzea urte honetan zehar eraberrituko dute

Kurutzeak garbitu eta eraberritzeko egitasmoan, 2011n Santa Anakoaren txanda izango da

Elorrioko Udala herriko hainbat txokotan dauden kurutzeak eraberritzen ari da. Oraintsu, Kurutzia-gako kurutzea berriztatu dute. Datozen urte bietan San Juan kalekoaren eta Santa Anakoaren txanda izango da.

Santa Anako kurutzeak San Juanekoak baino berritze sakonagoa behar du

2010ean zehar eraberrituko duten San Juan kaleko kurutzeak ez du Kurutzia-gakoak izan duen adinako zailtasunik eta, beraz, eraberritzea azkarragoa eta merkeagoa da. Santa Anakoak lan gehiago eskatuko du, aurretik "beste eraberritze handi bat pairatutakoa baita" Gobernu Taldeko Cris-

tina Sierra zinegotziaren esanetan: "Fusteak barrutik burdinazko ardatza du, eta hark ura xurgatu du, harria deseginez. Gainera, fusteak okertuta dago eta kurutzeak goialdea higatuta du", Beraz, eraberritze sakonagoa eskatuko du.

Bestalde, Kurutzia-gako kurutzearen hiru dimentsiotako kopia digitala egin eta gordeko dute, 4.750 euroko inbertsinoagaz. Horrela, inoiz gurutzea apurtzen bada edo kopiaren bat egin gura bada, informazio osoa izango dute detailerik txikienarekin. Eibarko Alfa Arte enpresak egingo du lan hori. ■ J.D.

Bestalde, Kurutzia-gako kurutzearen hiru dimentsioko kopia digitala egingo dute



Agustin Garcia Elorrixak Iturri kultur etxean duen bulegoan, dokumentuz inguratuta.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE APIRILAK 24 larunbata 11:00

ORDIZIA APIRILAK 17 larunbata 11:00

Enpresagintza Fakultatea

IRUN MAIATZAK 6 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA APIRILAK 22 osteguna 18:00

areto nagusian

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

ABADIÑO



Etxebideren esku utzi dute babeseko 69 etxebizitzaren esleipen prozesua ere.

Babes ofizialeko 69 etxeren eraikuntza eta zotz egitea

Etxebizitzak uda ondoren zozketatzea da Udal Gobernuaren aurreikuspena

Aurtengo bigarren seihilekoan zozketatuko dituzten babes ofizialeko 69 etxebizitza berri eraikiko ditu promotore pribatu batek Muntzaratzen.

Gobernu Taldeak jakinarazi duenez, babes ofizialeko 69 etxebizitzok esleitzeko zozketa Etxebide Eusko Jaurlaritzaren erakundearen esku uztea erabaki zuen udalbatzak, martxoaren 30ean egindako batzarrean. Hain zuzen ere, etxebizitzaren zotz egitearen prozesu guztia Eusko Jaurlaritzaren Etxebide erakundearen esku uztea onartu zuen udalbatzak.

Iazko urri hasieran babeseko 154 etxebizitzaren esleipendunak hautatzeko prozesua arautu zuten baldintza berak hitzartu dituzte uda honetan egingo duten 69 etxebizitzaren zozketarako ere: Abadiñoako etxebizitza babestuen iazko urriko lehenengo zozketan Abadiñoako herritarrek lehentasuna izango dutela jakinarazi du Udal

Orain urte bi garatzen hasi ziren hirigintza proiektuaren parte da Muntzarazkoa

Gobernuak. Hala ere, azken hamarkadan gutxienez urtebetez Abadiñoan erroldatuta egon direnek ere eman ahalko dute etxebizitza bat egokitu ahal izateko zozketan egoteko izena.

Aipatutako 69 etxebizitza berriok ere, Muntzaratzen egiten diharduten 470 etxebizitza eraikitzeke proiektuaren parte dira, Muntzaratz auzoan garatzen diharduten hirigintza egitasmoaren parte. Babes ofizialekoak 303, prezio tasatukoak 112, eta babes ofizilik bakoak 48 izatea jasotzen du egitasmoak. ■ I.E.

300 neska-mutil dantzan, etzi, Traña-Matienan

Apirilaren 18rako antolatu dituzte Umeen Dantzari Egunaren aurtengo ekitaldiak Traña-Matienan. Guztira, 300 neska-mutil dantzari batuko dira Iluntze Dantza taldeak antolatu duen hitzorduan.

Bederatzi talde—Zornotzako Udabarri, Durangoko Tronperri eta Txoritxo-Alai, Berrizko Iremiñe, Elorrioko Betsaide, Atxondoko Andasto, Ermuako Txindurri, eta Abadiñoako Talde Batuak eta aurtengo hitzordua antolatzen duen Iluntze—batuko dira aurtengo edizioan.

Eguerdiko 12:00etan kalejira, eta bazkalostean Alardea egingo dute talde guztiak ondoren, 17:00etan hasita. ■ I.E.

MAÑARIA



Ibilaldiaren ondoren bazkaria egin zuten.

Herriko ermiten "zaintzaileen" ibilaldia eta bazkaria egin zuten

Joan zen zapatuan ospatu zuten herriko "ermita zaintzaileen" bazkaria auzoetako ermiten mantenuaz arduratzen diren herritarrek. Goizean herriko plazatik irten eta Kurutze Santua, Aita Kurutzekoa,

San Lorentzo, San Juan eta San Martin ermitetara ibilaldia egin zuten. Orain hamabost urtetik daukaten ohitura jarraituz, dozena bat lagun batu ziren ibilaldian, eta 40 bat bazkaritan. ■ I.E.

ELORRIO

Jone Irazabalen ipuinak, ikasleen entretenigarri

Liburutegian izan zen martitzenean Jone Irazabal ipuin kontalaria, eskoletako umeei ipuinak kontatzen. Lehen eta bigarren mailako ikasleentzat antolatu zuten Irazabalen saioa. Bi taldeetan banatuta, guztira 30 umek entzun zituzten istorioak. *Munduko etxerik handiena*, *Iletxo astoa* eta *Miss Arina* ipuinak kontatu zituen Irazabalek Iturri kultur etxeko liburutegian.



DURANGALDEA

Ur mozketen bando faltsuak, AHTaren eraginak salatzen

Prensa oharrean azaltzen dutenez, ekintza bere gain hartu dutenek "AHTak gure mendietan egiten dituen kalteak eta gudan izan ahal dituen ondorioak salatzen" izan dira bando faltsuak. Udalaitz mendiaren inguruan lanak hasita daude, eta akuiferoetako "ur piloa galtzen ari" dela azaldu dute. Era berean, Tabirako obretarako, Izurtzako hodieta ura "baimenik barik eta Udalak jakin barik" erabili dutela kritikatu dute. Inori kalte egin gura barik eta jendea kalteez konturatzeko egin ei dute ekintza.

DURANGO

Pazko Jaia antolatu du bihar Tabira Txikik, Maristetan

Tabira Txiki elkarteak Pazko Jaia antolatu du, laugarrenez, biharko 17:30etik aurrera, San Jose Maristak ikastetxean. Euro baten truke hainbat ekitalditan (tailerrak, jokoak...) parte hartu daiteke. Iaz 700 lagunetik gora batu ziren. Esaterako, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, liburuak trukatzeko aukera dago, eta Nigeriako talde batek girotuko du eguna. Batutako dirua Andra Mariko gazteek kudeatuko dute, udan Rabateko (Maroko) umezurtegi bateko auzolanean erabiltzeko.

OTXANDIO

Jolasak batzeko egitasmoa

Joan zen martitzenean Otxandioko jolasak batzeko egitasmoa aurkeztu zuen Euskara Batzordeko Gurasoen Lan Taldeak. Jubilatuen Txokoa izan zen aurkezpena, eta 30 lagunek parte hartu zuten. Asier Astigarraga eta Iratxe Goikoetxea gurasoek orain arte identifikatutako jolasen berri eman zuten; informazioa jasotzeko laguntza eskatu zieten entzuleei. Bertaratu zirenek datoren asteetan jakiten dutena azaltzeko konpromisoa hartu zuten.



anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun




harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >

“Pribilegioa izan da Durangaldean antzina zelan bizi ziren sumatzea”

Gerediagaren ekimenez, eskualdeko historia umeengana gerturatzeko liburua kaleratu du Patxi Zubizarretak



Patxi Zubizarreta

- Ordiziarra da
- Haur eta gazte literaturan lan asko idatzitakoa da

tsatua eman zidan. Jende hura zelan antolatzen zen kontatzea izan da gure asmoa; kofradietan egiten zituzten bilerak, elizateak... kontzeptu horiek astun samarrak izan daitezke, eta modu erakargarri batean azaltzen saiatu gara. Uste dut Patirke Belazaren marrazkiekin hori lortu dugula.

Garai horietatik zer ikasi genezake gaur egunerako?

Uste dut historia horri begiratzek prespektiba historiko bat ematen digula, gaur egunera zelan heldu garen ikusteko. Lehen mundu magikoan bizi zirela iruditzen zait. Momotioko kanposantuan, adibidez, hilarrietan zuloxoak daude. Badirudi zuloxo horietan sua

Durangaldeko historia umeek ulertzeko moduan: horixe da ‘Merioaren ibilbidea’ liburuan topatuko duguna. Gerediagak bultzatuta, Patxi Zubizarretak idatzi du liburua. Idazleak dio berarentzat pribilegioa izan dela gure eskualdeko historian barneratzea.

Zer topatuko dugu ‘Merioaren ibilbidea’-n?

Durangaldeko historia oso hurbila baina aldi berean oso ezezaguna kontatzen duen liburua da. Umeei gauza sakonak kontatzeko testu arin bat egiten saiatu naiz.

Zelan sortu zen liburua egiteko asmoa?

Durangoko Azoka baino lehentxoago Gerediagatik deitu zidaten galdetzeko ea prest egongo ote nintzen Durangaldeko historia laburtuko zuen liburuxko bat idazteko, eta horrelaxe. Ezagutzen nituen horko bazter batzuk, eta uste dut benetan paraje berezia dela, bai paisaia aldetik bai niretzat ezezagun samarra zen historiagatik ere.

Eskualdeko historia ezagutzeko Gerediagaren laguntza izan duzu. Bai. Hasteko Jon Irazabale-

gaz goizpasa bat egin nuen, Goiurian hasi eta Durangon amaituta. Tartean, Astolako kartzela ikusi genuen, Muntzarazko dorretxea, Gerediagako zelaia... eta niretzat

gutziz ezezaguna zen San Juan Momotiokoa. Han benetan liluratuta geratu nintzen, lehenago herrixka batena zen hilerri haregaz. Oso goiz polita izan zen historia aldetik; batez ere, bertatik bertara ikusi ahal izan nituelako Gerediagakoek pasatutako materialean agertzen ziren tokiak. Gero beste bidaia bat egin genuen marrazkilariagaz. Bidaia har-

tan Momotion katu bat agertu zitzaigun, eta han izan genuen orpo orpo denbora guztian, eta pentsatu genuen liburuan katu hori agertu egin behar zela nola edo hala, eta azkenean agertzen da. Aipatu behar dut Goiurian hegazkin baten argazkia ikusi nuela, XX.mende hasierako hegazkin batena, Iurretako Santa Polonian lurreratu zenekoa.

Bere historia ezagutu nuen liburuan sartzea erabaki nuen.

Beraz, XVI. mendeko Merioaren Ibilbidea hartu duzu ardatz, baina garai askotako kontuak kontatzen dituzu liburuan.

Bai. Istorioko ikasle talde bat mikrobusean joaten da Goiurira, Merioaren Ibilbidea egitera, eta zain daude gidaria noiz etorriko. Halako

batean, zerutik, parapente batean ageri da Maria gidari misteriotsua; Anbotoko Mariren parekoa. Ibilbidean Durangaldeko historiako hainbat kontu kontatuko du.

Gaitza egin zaizu garai horiek irudikatzea?

Ez, egia esan, ez. Adibidez, XVI.mende inguru horretan zelan bizi ziren ikusteko Bilbon egon nintzen Arkeologia Museoan, eta han merioen garaiko janzkerak-eta ikusi nituen. Gainera, oso polita iruditu zitzaidan ikustea lehen Bilbo zein herrixka txikia zen. Kurioa da ikustea gaurko hirien jatorrian nola egon daitekeen jende multzo txiki bat. Garai hartan, Bizkaia osoan 8.000 lagun bizi izan ziren, eta gaur egun Durangaldean bakarrik 80.000. Horrek ere zer pen-

“San Juan Momotiokoa bisitatzen liluratuta geratu nintzen”

“Antzinako mundua oso mundu xumea zen, baina esanahiz betea”

pizten zutela, pentsatzen zutelako su horrek arimari zeruratzten laguntzen ziola. Oso mundu xumea, txikia zen, eta aldi berean esanahiz betea. Gaur egun, gauza asko ditugun arren, esanahien mundu hori apur bat galdu dugula iruditzen zait. Garai hartan denak zuen bere esplikazioa; tximistak Mariren haserre, suak hildakoaren arima... Orain, esaterako, sinestuna ez den norbait hiltzen denean ez dakigu ondo nolako agurra eman. Lehen lurragaz genuen harremana ere galdu dugu. Niretzako pribilegio bat izan da sumatzea zelan bizi ziren garai hartakoak. ■ A.Ugalde

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Kataluniako Turismo Aretoan Durango sustatu guran

Durango Turismo Bulegoak standa dauka Kataluniako Turismo Azokako 19. edizioan

Durango Turismo Bulegoak Kataluniako Nazioarteko Turismo Aretoan Durango sustatuko du, apirilaren 15etik 18ra. Durango standeko ardatza urte-sasoia izango dira, Turismo Bulegoaren arabera "ondo laburbildu eta irudikatzen dutelako herriak urte osorako moduko proposamena daukala. Bulegoak adierazi duenez, "aukera bikaina da bidaiazaleekin harremanetan ipintzeko; izan ere, azoka honek balizko 200.000 hartu-eman lortzeko bidea ematen digu".

Kataluniako Nazioarteko Turismo Aretoak 19. edizioa du aurtengoa, eta turismoaren industriako erakusleho komertzialik sendoenetakoa dela jakinarazi du Bulegoak. Kontutan izan behar da, gainera, katalanak direla Durango datozen bisitari kopuru handi bat. Bartzelonako azokara joan gura dutenek Turismo Bulegoan doako sarrerak eskuratu ditzakete jakinazi dute. ■ G.A



Turismo Bulegoak Kataluniako bisitariak jasotzen ditu gehien; Aste Santuan 33 bisitari.

Eskualdeko enpresei zuzendutako mintegiak

Bi mintegi antolatu dituzte apirilaren 21erako

Durango Behargintzak eta Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) kolaborazio-hitzarmena sinatu dute. Era horretan, "eskualdeko enpresen beharrak asetuko dituzten ikastaroak eta mintegiak" antolatuko asmoa dute.

Doako bi mintegi antolatu dituzte apirilaren 21erako. Bata, Ordaindu eta kobratzeko kudeaketari buruzko izango da; bestean Zirkulatzailaren finantziario

izango dute hizketagai. Mintegi hauek gerenteei, komertzialei, finantza, pertsonal eta administrazio sailekoei eta enpresaren likidezaren gainean, aholkularitza jaso gura duen profesional eta autonomoei zuzendutakoak dira, bestiek beste. Izen-ematea edo informazio gehiago 94 623 25 22 edo 94 400 28 51 telefonoetara deituta edo pymes.mdurango@bizkaia.org webgunearan bitartez. ■ G.A

> DURANGALDEA

503 eskaera onartu ditu Eskualdeko Enplegu Planak

Durango Udalak aurreko astean argitaratu du Eskualdeko Enplegu Planean onartutako enzerrenda. Plan honek Bizkaiko Foru Aldundiko laguntza du, eta honen bitartez 14 behargin kontratatuko dira. Guztira, 565 eskaera izan dira sei espezialitateetan, eta oraingoz 503 onartu dituzte hautatze prozesuagaz jarraitzeko.

Administrari lanposturako, esaterako, 82 eskaera eta behatzaille lanpostuetarako 146 onartu dira. Delineatzaile lanposturako 25 eskari izan dira, baina oraindik onartuen zerrenda ez dute argitaratu. Horrez gainera, koordinatzaile, herri-lan eta ikuskatzaile lanpostuetarako ere eskaera asko izan dira. Eskabideak ezetsitako kasu gehienetan, arrazoia Durango erroldaturik ez egotea, adina edo lanik bakoak direla ez ziurtatzea izan dira. ■ G.A

Plan honen bitartez 14 behargin kontratatuko dituzte, eta Foru Aldundiko laguntza dauka

> BIZKAIA

Mobilizazioak Bizkaiko bulego eta despatxuen sektorean

CCOO, ELA, UGT eta LAB sindikatuek mobilizazioak antolatu zituzten Bilbon, eguenean, "Cebek patronala konbenioaren negoziatioetan ezarritako blokeari erantzunez". CCOO sindikatuak azaldu duenez, "Konbenioak 25.000 behargini eragiten die eta geldirik dago 2009ko urtariletik". Gainera, urte bete eta hiru hilabete bete dira, dagoeneko, soldata bere horretan dagoela, eta

"Konbenioak 25.000 behargini eragiten die, eta geldirik dago 2009ko urtariletik"

Bizkaiko patronala badirudi gus-tura dagoela egoera horretan".

Sindikatuak edukiak dituen negoziatio gura dute, ez bakarrik soldata eta lanaldiaz hitz egiteko, izan ere, beharrezko ikusten dute mahai gainean jartzea kategoria profesionala edo ingeniari eta informatikoen soldaten parekatzea lako gaiak beste batzuen artean. ■ G.A

■ kolaborazioa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Erregimen antisoziala

Eusko Jaurlaritzara heldu ziren bezala heldu ziren (putxerazoa barne), eta urtebete geroago (PPren laguntzarekin eta oposizio epelarekin) eredu politiko eta ekonomiko konkretu baten zerbitzutan dagoen sistema eratu nahi dute. Arau demokratikoak eragozpena dira Jaurlaritzaren-tzat. "Elkarrizketa soziala" asmatu dute murrizte garaian erabakiko dituzten politika (anti)sozial eta ekonomikoei babes antidemokratikoa emateko. Botere ekonomikoak honelako ekintzak txalotu ditu eta txalotuko ditu, eta argi dago botere ekonomiko eta instituzionalaren menpe dauden komunikabideek bide bera jarraituko dutela. Demokrazia eza (gehiengoa errespetatu barik) eta botere ekonomikoarekiko sumisioa dituzte ardatz. Horren arabera, hurrenez hurren, burura datozkit aurrera eramanez edo eramatekotan dauden hurrengo "perla" hauek: EITBko Administrazio Kontseilutik gehiengo sindikala kanpo utzi, "Elkarrizketa Soziala" gutxiengo sindikalarekin (CCOO, UGT) eta edukirik gabea patronalarekin ez konfrontatzeko, Osalan (Lan Osasuna) hustu gai guztiak "Elkarrizketa Sozialeko" mahaitik aurretik adostuta eramanez, Dekretu bidez LHK (Consejo Relaciones Laborales) eta EGAB (Consejo Economico y Social Vasco) erreformatu etorkizunean gutxiengo sindikalarekin hartuko dituzten erabakiak blindatzeko, euskarari balioa kenduko dioten politikak aurrera eramanez (hezkuntza eremuan, administrazioan...), gehiengoaren printzipioari eta langilegoari bizkarra ematen dioten erabaki hauei koartada ematen dioten (CCOO/UGT) finantzaketa, eta abar... Aipatu dugun guztia Estatuan egiten den "Elkarrizketa Soziala"-ren ondorio dira. Estatuan laster bi erreforma egongo dira: laboral (negoziatio kolektiboa barne) eta pentsioena. Zentralizazio arriskua eta, berarekin, lan baldintzak okertzeko nabarmena da. Patronalarekin iristen diren akordioak aldizkari ofizialera eramango dira. Eta EAE eta Nafarroako instituzioak horren sukurtal edo "txiringito"-ak besterik ez dira. Erasoak, era ezberdinetakoak etengabeak dira. Hala ere, aste honetan pozteko arrazoi handi bat badugu: Egunkariko 5 zuzendaritzako kideen absoluzioa. Zorionak beraiei eta Egunkariaren alde borrokatu diren milaka euskal herritarrei!

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA>



Argazkia: Kepa Aginako

MUSIKA> KONTZERTUA

Shivovak biraren geldialdia Errotan egin zuenekoa

Aurretik, besteak beste, eskualdeko Muted, Seiurte Nabari, Eta zer! edo The Kraven taldeetan jardundako musikariek osatzen duten Shinova taldeak *Latidos* diskoaren aurkezpen biraren geldialdi berezia egin zuen, joan zen barikuan, talkideetako batzuen herriko Errotan kultur etxean. Rock metalaren arloan diharduten kritikari musikalek Abadiñoko Shinova "aurtengo errebelazioa" dela azpimarratu dute azken hilabeteetan.

Shinova taldeak zuzenean erakusten duen indarra eta bere kantak gidatzen dituen erritmo bizkor eta melodia uztarketa "perfektua" nabarmendu izan du hainbat eta hainbat kritikariek.

Gabriel kantuan, Akaro eta Javi gitarretan, Ander baxuan eta Eneko baterian dira 2008an sortutako Shinovako taldekideak, eta datozen asteetan, besteak beste, Madril eta Tenerif joko dituzte euren kantuak.

Orain urtebete Ondarroako Santos Records estudioan grabatu, Madril nahastu eta Argentinan masterizatutako diskoan bildutako kantak aurkezteko, Espainiako zein etxeko hainbat aretotan jardun dute azken hilabeteotan Shinova taldeko Durangaldeko musikariek. Hiriburua handietako aretoetan zein eskualdeko hainbat herritako kultur etxeetan ere eskaini dituzte denbora honetan euren kantak, zuzenean. ■ I.E.

12 Durangaldeko Bertsolari Txapelketa

Apirilaren 23an, Mallabiko Izar Gorri elkartearen izango da lehenengo saioa: Lazkano, Sarriugarte, Ormaetxea, Amuriza, Ugartetxea eta Sololuzek jardungo dute.



14

'Biga Espazio' gunea zabalik

Arte eszenikoen inguruan, antzerkian, zirkuan zein beste hainbat arlotan diharduten Durangaldeko artisten topaleku izateko sortu dute Biga Espazio.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Mallabian abiatuko da barikuan Durangaldeko Txapelketa

Apirilaren 23an, Mallabiko Izar Gorri elkartearen jokatu da Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren lehenengo kanporaketa, afalosteko giroan

Eskualdeko hamaika bertsolari gazte jardungo du udaberriaren Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren kanporaketetan kantuan. Apirilaren 23an, Mallabiko Izar Gorri elkar-

Maiatzaren 29an
Berrizko frontoian da
txapelketaren finala

tean egingo dute lehen kanporaketa; Gorka Lazkano iazko txapeladuna, Garikoitz Sarriugarte, Unai Ormaetxea, Miren Amuriza, Beñat Ugartetxea eta Julen Sololuze arituko dira bertan.

Kanporaketa bietan, bertsozale guztiei 15 euroan eskaintzen zaien afariaren ondoren ekingo diote bertsolarietako jardunari. Maitte Berriozabal eta Amaia Ugaldek emango dizkiete bertsolarietako gaiak.

Bigarren kanporaketa, apirilaren 30ean, Iurretako Oromiño auzoko txokoan izango da, eta Mallabian irabazten duen bertsolariagaz Ander Aldazabal, Eneko Abasolo "Abarkas", Jon Ander Urkiaga, Ander Salaberria eta Eñaut Uruburu kantatuko dute.



Kanporaketa saioak eta finala

- **Apirilaren 23an Mallabiako Izar Gorri elkartearen, 21:00etan** (afaria, eta ondoren saioa). 15 €
Bertsolariak: Gorka Lazkano, Garikoitz Sarriugarte, Unai Ormaetxea, Miren Amuriza, Beñat Ugartetxea eta Julen Sololuze.
- **Apirilaren 30ean, Iurretako Oromiño txokoan, 21:00etan** (afaria, eta ondoren saioa). 15 €
Bertsolariak: Ander Aldazabal, Eneko Abasolo 'Abarkas', Jon Ander Urkiaga, Ander Salaberria, Eñaut Uruburu eta Mallabiko saioa irabazlea.
- **Finala: maiatzaren 29an, Berrizko frontoian.**

Durangaldeko hamaika bertsolariaren arteko udaberriko txapelketa

Kanporaketen irabazleek eta epaimahaiarengandik puntuazio altuena lortzen duten beste lau bertsolariak, maiatzaren 29an Berrizko frontoian egingo den finalean kantatzeko aukera izango dute, eta baita 2010eko Durangaldeko Bertsolari Txapelketako txapela janztekoa ere. ■ I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

Orain hiru urte atek zarratu zituen Beittu arte galeriaren sustatzaileek Beittu Ediciones izena hartuta azken urteetan editatu izan dituzten dozena bat arte-lanen bilduma da apirilaren 9tik maiatzaren 2ra arte Durangoko Arte eta Historia Museoa ikusgai duguna. Durangaldeko zein eskualdetik kanpoko dozena bat margolariren lanak dira asteotan Museoaren hormetan zintzilikatuta, ikusgai eta gozagai ipini dizkigutenak.

Imanol Larrinaga eta Damaris Panen koadroak, besteak beste

Beste batzuen artean, Damaris Pan mallabitar gaztearen eta Fernando de Vicente eta Imanol Larrinaga durangarren koadroak dira *Inpresioak* izenagaz antolatuta duten erakusketaren parte. Horiez gainera, Alfonso Gortazar, Juan Miag, Jorge Garcia, Luis Candau-dap, Marta Cardenas, J.A. Azpilicueta, Amagoia Ruiz, Esperanza Zabala eta Gonzalo Jauregui margolariren lanak ere bisitarientzako ikusgai ipini dituzte Museoan.

Joan zen bariku iluntzean egin zuten erakusketaren inaugurazioa, eta maiatzaren 2a arte Museoaren ohiko ordutegian izan-

'Inpresioak': taldeko erakusketa Museoan

Maiatzaren 2a arte daude dozena bat artistak egindako lanak ikusgai, Durangoko Museoan



'Beittu Ediciones'-en azkeneko edizioen bilduma da Museoakoa

go da zabalik; martitzenetik barikura 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



José Julián Bakedano
Zinegilea

Anthony Quinn eta euskaldunak

Bitxia da antzezle honek bere ibilbide oparoan gai euskaldunei buruzko nazioarteko proiektutan zenbatetan parte hartu izan duen. Lanetariko lehenengoa, landa-eremuan girotutako *Viento salvaje* (*Wild is the wind*, George Cukor, 1957) drama da, eta Anthony Franciosak egiten du Bene izeneko artzain euskaldunaren papera. Anna Magnaniren maitasunagatik norgehiagokan dihardu drama pertsonal honetan Anthony Quinnekin.

Bigarren luzemetraia, makien historiari buruko *...Y llegó el día de la venganza* (*Behold a pale horse*, Fred Zinnemann, 1964) kontakizuna da. Iparraldean kokaturiko istorioa da; Omar Sharif-ek Aita Francisco abade euskaldunarena egiten du bertan, eta Vainolas guardia zibilaren kapitain beldurgarriarena Anthony Quinnekin. Columbia ekoiztetxea eta Francoren gobernuak aurrez aurre ipini zituen filmak, eta ekoiztetxearen Espainiako ordezkariaren itxiera ere ekarri zuen liskar hark.

Mando perdido izeneko da hirugarren filma (*Lost command*, Mark Robson, 1966), Argeliako gerrari buruzkoa. Raspeguy euskaldunarena egiten du lan honetan Quinnekin, eta Alain Delon eta Maurice Ronet-ek lagunduta agertzen da pantailan.

El pasaje (*The passage*, J. Lee Thompson, 1979) da laugarren filma, eta zientzialari bat nazien jazarpena saihesten (James Mason) laguntzen duen artzain euskaldunarena egiten du bertan Anthony Quinnekin. Pirinioetan eta Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan kokaturiko filma da *The passage*.

Aipaturiko filmeetariko bat ere ez da maisulana, eta laurak sortzen dute ikusteko besteko interesa.

LITERATURA > LIBURUAREN EGUNA


Yolanda Arrieta, piano doinuek lagunduta

Yolanda Arrieta idazle etxebarritarren eta Juantxo Zeberio piano-jotzailearen emanaldia

Juantxo Zeberio piano-jotzaileak lagunduta egingo du Yolanda Arrietak *On-off* liburuan oinarritutako emanaldia, 22:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxean. Apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolaturiko emanaldia da aipatutakoa. Joan zen udan, Erein argitaletxearen eskutik kaleratu zuen Arrietak liburuak, eta 30 eta 60 urte arteko irakurleei zuzenduriko narrazio laburrak biltzen dira bertan.

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute ekitaldia

'Emakumea eta literatura' erakusketa Kultur Etxean ikusgai



Autoreak aurkezpenean azaldu zuenez, "bizi dugun gizarte urbanoko askatasunaren argi-ilunei" buruzko gogoetak dira liburuan daudenetariko asko.

Apirilaren 23a, nazioartean liburuaren eta egile eskubideen eguna dela-eta, *Emakumea eta literatura* izeneko erakusketa ere bisitagai ipiniko da apirilaren 23an Berrizko Kultur Etxean. ■ I.E.

ANTZERKIA > ESTREINALDIA



'Jules Vernereren azken abentura': irudimenari omenaldia oholtzetan

Alex Diaz abadiñarrak zuzendu du 'Jules Vernereren azken abentura' antzezlan. Sei urtetik gorako umeei zuzenduriko lana da **Gorakada** antzerki taldearen azken hau. Apirilaren 17an, Zornotza Aretoan egingo dute estreinaldia, eta datozen asteetan Durangaldeko beste antzoki batzuetan ere eskainiko dute. Durangaldeko sortzaileek jardun dute irudimena gai nagusi duen abentura honetan.



ere, bere istorioaren azken paragrafoetan ilargian utzi duen pertsonaia zelan erreskatatu pentsatzen dabilela abiatzen da antzezlaneko abentura. Pertsonaiaren bila ilargira joan behar duena bera dela erabakitzen du Vernek. Hortik aurrera, irudimenetik sortutako eta abenturaz jositako unibertso bat jabetzen da idazlearen mahaiaz.

Eszenografia landua

Idazmahaiako aulki, mahai, apaletegi eta liburutatik lurraren barnerainoko pasabide bat, itsaspean zeharreko bidaia bat eta beste igarotzen ditu Vernek ilargira ailegatu orduko. Eszenografia eta irudimena dira oholtzako bidaien motorrak, euren bultzadagaz lurraren erdigunetik igaro eta ilargiraino ailegatzeko. Joxi Ibarrolak diseinatu eta Javier Obregonek ekoiztutako eszenografia du lanak kokagune, Oskorriin jardundako Fran Lasuenek sortu du antzezlanean oso inportantea den musika, eta Maider Zabalak jantziak.

“Joxi Ibarrolak diseinatu eta Javier Obregonek sortutako eszenografia”

Azken asteotan Gaztela eta Leongo hainbat hiri eta herritako oholtzetan aurkeztu du Gorakadak *Jules Vernereren azken abentura* antzeleanaren gaztelarazko bertsioa. Antzezlanaren erakutsi duten lekuetako ikusleen partetik jaso dituzten iruzkinen artean, “Vernereren biografia eta obraren ikuspegi oso zabala” ematen dutela errepikatu ei die gehien, Alex Diaz zuzendariak pozik dionez. Txikitxoek, bestealde, oholtzako istorio horiek idatzi zituenari buruz gehiago jakiteko irrikagaz ateratzen ei dira antzokietatik. ■ I.E.

Bihar, apirilaren 17an, Zornotza Aretoan eskainiko du Gorakada antzerki taldeak bere azken ekoizpena lehenengoz: *Jules Vernereren azken abentura* izena daukana. Zornotzakoaren ondoren, apirilaren eta maiatzaren, eskualdeko hainbat herritako umeei ere gozatu ahaliko dute irudimenagaz jolasteko gonbitea egiten dien obra: Berriz, Abadiño eta Durangora ekarriko dute, besteak beste.

Izaskun Asua antzezle elorriarrak Martaren papera egiten du *Jules Vernereren azken abentura* n; idazlearen neskamea da. Protagonista nagusia, Julio Verne, Josu Camara aktoreak gorpuzten du, eta Ainhoa Alberdi eta Zigor Bilbao dira obran lan egiten duten beste bi antzezleak.

Orain urtebete hasi zen antzezlan honen ideia garatzen; Alex Diaz zuzendari abadiñarraren berbetan, “gidoia idaztea, dramaturgia teatrala garatzea, eszenografia sortzen joatea eta abar pentsatzen urtebete lehenago hasi ginen”. Entseguak eta elementuen eszenaratzea, bes-

talde, sei hilabeteko beharra izan dira, Diazek azaldu digunez.

Jules Verne Nanteko idazleak 1864an idatzitako *Lurraren erdigunerako bidaia* eleberria du antzezlanak abiapuntu, baina Jokin Oregik idatzirik gidoia da oinarria. Vernereren istorioetako pertsonaia ezagunak agertzen dira Gorakadaren azken abenturan: Fogg eta Nemo kapitaina ikusiko ditugu esaterako, oholtza gainean.

‘Lurraren erdigunerako bidaia’ eleberria du antzezlanak oinarri

Bere istorioetan Jules Vernek erakusten zuen irudimenari eta adimenari omenaldia egiteko ideiaz sortutako antzezlan da Zornotza Aretoan estreinatuko dutena: Gorakadak Verne bera gura zuen bere azken istorioaren protagonistatzat. Eta Verne da abenturaren protagonista nagusia.

Goraka eta goraka

Geroago eta proiektu serioagoak egiten ei dihardu Gorakadak, Diaz zuzendariak zehaztu duenez, “serioagoa esaten dudanean ez nabil seriotasunaz, profesionaltasunaz baino”. Umeei zuzenduriko antzerkia egiterakoan ere edukia, istorioa eta eszenaratzea ere asko zaintzea da, Gorakadako zuzendariak azpimarratzen duenez, seriotasuntzat ulertzen dutena: ikuslego helduarentzako ikuskizunak beste lantzea umeei zuzenduriko antzezlanak ere.

Hamarkada bi baino luza-roago etenik bako martxan dabilen konpainia hartzen dabilen esperientziaren eta urterik urte ikuslegoak ere hartu duen esperientziaren adibide da *Jules Vernereren azken abentura* Diaz zuzendariarentzat. “Umeentzako antzerkian ez du denak balio: kontatzen denak istorio ona behar du izan, eta lanaren egitura asko zaindu beharra dago”.

Jules Vernereren idazmahaitik abiatzen da Gorakadaren azken lanaren bidaia. Hain zuzen

“Eszenaratzea eta edukia asko lantzea dira Gorakadaren sekretuak”

Mila emanaldi baino gehiago eta 20 ikuskizun inguru 23 urtean

1987an sortu zuen Gorakada antzerki taldeak bere lehenengo antzezlan. Hogeita hiru urte daramatzate orduetik umeentzako pentsatutako antzezlanak ekoizten.

Hamarkada bi baino luza-roago etenik barik jardun dute umeentzako antzerkian geroago eta gehiago espezializatzen. Mila emanaldi baino gehiago eta 20 ikuskizun inguru sortu dituzte 23 urteotan.

Gorakadaren azken lanaren zuzendari den Alex Diazek azpimarratu duenez, euskal zirkuituan zein Espainiakoan ere oso izen egonkortua da Gorakada, eta lan bat aurkezten duten bakoitzean estatuko zein etxeko aretoetako atea parez pare zabaltzen dizkiete.

Neguan pentsatu eta martxan ipintzen dituzten proiektuak udaberri eta udan erakutsi ohi dituzte. ■ I.E.

ANTZERKIA > INAUGURAZIOA

Arte eszenikoen bilgune izateko jaio da Biga Espazio

Orain aste bi inauguratu zuten Intxaurren kaleko 36. zenbakian dagoen lokal berria

Tailerrak emateko lekua, biltoki moduan erabili litekeena, finean, sortzaileen elkartrukerako gunea da orain aste bi Durangoko Intxaurren kaleko 36 zenbakian zabaltzen dutena. De Bote en Bote, Ganso&cia eta Biribil elkarteek bultzatu dute espazio berri honen sorrera; Durangaldean antzerkian, zirkuan, akrobazian eta antzekoetan jarduten duten taldeak dira Biga Espazio bultzatu dutenak.

Durangon elkartu dituzten bizitza eta lanak Bilbo, Argentina zein Zaldibarko sortzaile eta antzezleak, eta euren lana garatzeko leku baten beharizanak bultzatu ditu Biga Espazio sortzera.

Umeei zuzenduta antolatuko dituzten tailer, ikastaro eta emandietan indar berezia egingo dutela azpimarratu digu taldeko kide den Aritz Rodriguez antzezle zaldibartarrak. Akrobazia tailerra, clowna, malabareak, ekilibrioak, yoga fisikoa eta kontortzio tailerrak antolatu dituzte. Adin guztietako jendea gonbidatu dute lokala ezagutzera gerturatu eta ikastaroetan parte hartzera.

Akrobazia tailerrak astean birritan, yoga tailerra martitzenean, malabareak astelehen eta eguazten iluntzetan, eta clown eta kontortsioaren inguruko tailerrak ere proposatzen dizkigute Biga Espazioan. Jakinmina duen eta tailerretan parte hartu gura duen edonorentzako 605 714 358 telefonoa ipini dute aukeran. ■ I.E.

De Bote en Bote, Ganso&cia eta Biribil elkarteek bultzatuta

Akrobaziak, clowna, malabareak, yoga... egiten ikasteko lekua



Tailerretan izena emateko, 605714358 telefonoa aukeran

IPUIN KONTALARIAK > SAIOAK

Berrizera eta Durangora ere hainbat herrialdeetako ipuinekin datozkigu

Durangoko Liburutegian eta Berrizko Kultur Etxean dira apirilaren 16ko kontalarien saioak

Serigrafia eta litografia inpresio tekniken bitartez landutako lanak dira erakusketarako batuta-koak. Erakusketaren eskuorrian Iñaki Imaz artistak Fernando de Vicenteren lanari buruz esaten duenez, aldakorrak diren sinboloen irudiak dira koadroetakoak; begiratzen duenaren interpretazioaren arabera forma eta koloreak dira Beittu Ediciones-en sortzaile ere baden artistaren lanaren adibide direnak. ■ I.E.

Egonkorak ez diren sinboloen irudiak dira koadroetakoak

Munduko Kontalarien Elorrioko jaialdian ere parte hartu duen Christian Atanasiu alemaniarrek emanaldia eskainiko du apirilaren 16an, 20:00etan hasita, Durangoko Udal liburutegian. Berak sortutako testuak eta Kändler eta Heissenbüttel-enak uztartuko ditu Atanasiuk bere emanaldian. Orain arte aipatu dogun legez,

Christian Atanasiu Durangon eta ipuin kontalari bi Berrizen

Elorrio eta Durangon bakarrik ez, Berrizen ere bada asteburu honetan Munduko Kontalarien saioaz gozatzeko aukerarik. Bigarren urtez antolatu dute Berrizko Kultur Etxean Munduko Kontalarien emanaldia.

Apirilaren 16an baita, gaur 22:00etan, Berrizen izango dira Nora Lua argentinarraren eta Luciano Federico sizialiarren ipuinen kontagintza saioak. Antzerkigintza eta kantagintzan trebatutako kontalariak dira, umeei zein hirugarren adinekoekin lan egin izan dutenak. Umoretik ere baduten istorioak eskainiko dituzte emanaldietan. ■ I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

Fernando de Vicenteren 22 serigrafia eta lau litografia Elorrioko Iturrin

Apirilaren 29ra arte dago zabalik Elorrioko Iturri kutur etxean Fernando de Vicenteren erakusketa

Gorputz solidoen teoria eta zoriontasuna (umeentzako kontatua) da de Vicenteren serigrafia eta litografia lanak biltzen dituen erakusketaren izena. Artista durangarraren 26 lan dira erakusketan ikusgai ipini dituztenak, eta lane-gunetan, 09:00etatik 22:00etara, eta zapatuetan, 09:30etik 13:30era, bisitagai izango ditugu.



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 17 22:00etan
LAIA + CHILDRAIN + COHEN
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

APIRILAK 22 20:00etan
LABURBIRA 2010
FILM LABURREN ZIRKUITUA
ZINEA EUSKARAZ. Sarrera doan.

APIRILAK 23 22:00etan
UEK + THE WET BAND + KRAUSK
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

HUJOS DE LAS ESTRELLAS

Da.Te Danza

San Agustín KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Apirilak 18 • 18:00etan

HITZ

Liburudenda

11.94 601 07 76 Artekale, 4 DURANGO



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroskitondoa)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO HONEK FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAINAREN 30a ARTE-DAGO INDARREAN.

Anboto.org: inoiz baino biziagoa eta jantziagoa



Talde multimedia izateko apustuan geroago eta sendoago ematen ditu pausuak Anbotok. Webguneak bizitasuna irabazi du uneoroko eguneratzeari esker, eta bideo zein audio zerbitzuek eskaintza osatu dute. Irratia ere on-line entzun daiteke webgunearen bitartez.

Albiste diren gertakariak momentuan bertan argitaratzen dira

Komunikabideen alorrean aldaketa ugari ematen ari dira azken urteetan; komunikazioaren sasoian gaudela esan ohi da. Irakurritz, entzunez edo ikusiz, informazioa jasotzeko hamaika aukera daude, eta Anbotok ere bere eskaintza hedatu du hiru dimentsiotara. Paperean izandako esperientzia lagun, sarean eta uhinetan ere murgildu da euskarazko herri komunikabidea. Norabide horretan, webguneak eraldaketa nabarmena izan du, uneoroko informazio fresko eta osatualantzeko asmoagaz.

Unean unekoa

Anboto.org atariak izandako berrikuntza handienetakoa

informazioaren eguneratzean dago. Webgunea da, baina orainkaria ere bai. Hau da, Durangaldean albiste diren gertakariak momentuan bertan argitaratzen dira. Prentsaurrekoak, istripuak, ekimenak, adierazpenak, trafikoa, eguraldia... erredakzioan datuak jaso eta handik minutu gutxira Interneten sareratzen da artikulua.

Gainera, ahalik eta informazio osotuena eta ulerterrazena zabaltzeko helburuz, albisteak gehigarriekin plazaratzen dira. Adibidez, prentsaurreko bat argazkiagaz argitaratu daiteke, elkarrizketa bat bideoagaz, adierazpen bat audio korteagaz. Garrantzia handia ematen zaie, beraz, ikusentzunezko baliabideei.

Atalez atal

Aktualitateko gaietaz aparte, webguneak eskualdeko informazioan sakontzeko hainbat aukera eskaintzen ditu. Albisteak herri eta gaiaren arabera sailkatzen dira, eta denbora igaro arren, ataletan sartu eta berriro irakurri daitezke. Anboto astekarian kaleratutakoak ere bistaratu daitezke, hemerrotekatik artxiboak deskargatuz.

Oraintsu sortutako beste atal berri bat 'Argazkiteketa' da. Anbotoko argazkilariek ateratako argazki bildumak ikusgai daude bertan, eta eragileek zein norbanakoek bidalitakoak ere bai. Izan ere, kazetari sena eta parte-hartzea bultzatu guran, herritarrei zabalik dago.

Datorrena

'Bideoteka' eta 'Audioteka' zerbitzuak estreinatuta daude dagoeneko (ikus hurrengo orrian), eta datozen asteetan elkarrizketak zuzenean ematen hasiko gara webgunearen bitartez, telebista bailitzan. Adi, beraz, eta klikatu egizu www.anboto.org! ■ M.O.

Kazetari sena bultzatu guran, herritarrei zabalik dago 'Argazkiteketa'

Bideo-elkarrizketak zuzenean ematen hasiko gara laster, Internetez

Bideoteka eta Audioteka

BIDEOTEKA

Anbotok sortutako bideoek leku berezia izango dute webgunean. Azalean, eskumako aldean beti bideo bat egongo da ikusgai, igotako bideo berriena, hain zuzen ere.

Bestalde, bideo guztiak 'Bideoteka' atalean sailkatuko dira, kontsultarako aukera emanez. Goiko menuan horri eskainitako tarte bat aurkitu daiteke. Bertan klikatu eta hainbat bideo bistaratu da.

Prentsaurrekoak, elkarrizketak eta erreportajeak izango dira aukeran, besteak beste.




AUDIOTEKA

Irakurri eta ikusteaz gainera, webguneak entzuteko aukera ere eman gura die Interneteko jarraitzaileei.

Webgunearen goiko menuan 'Audioteka' izeneko atala sortu da, eta bertan klik eginez eskualdeko protagonisten adierazpenak entzun daitezke. Anboto Irratian eginiko elkarrizketak ere hemen gordetzen dira.

Protagonistekin elkarrizketa osoak, adierazpen laburrak eta albistekak daude eskura, esate baterako.




Anboto Irratiak lurretako egoitza emititzen du bere seinalea. Bi eratan egiten du: irratiuhinen bidez eta Internet sarearen bidez. Lehenengo eran, 99.0-an entzun daiteke irrati aparailuan; bigarren eran, webgunea erabiliz.

Interneteko nabigatzailean www.anboto.org helbidera joan eta gero, klik bat egitea baino ez da behar irratiaren sintonia entzuteko. Sistema erraza du, beraz. Eskumako irudian agertzen den moduan, leiho berezia ageri da webgunean.

Play botoia sakatzea da egin beharreko guztia; modu honetan webgunean bertan entzun daiteke seinalea.

Nabigazioan jarraitu eta beste orri batzuk bisitatu gura izanez gero, erreproduktoreen iko-



noen gainean sakatu eta aparteko leiho bat zabalduko da. Horrela, beste orri bat aukartzean, irratiaren audioa ez da etengo.

Bestalde, goiko irudian ikusi daitekeenez, irratiako elkarrizketak eta albistegia ere eskaintzen ditu leiho honek.
PROGRAMAZIOA
 10:00 etan Albistegia
 11:00-13:00: Magazina
 Egun osoan musika etenenik barik

Anboto Irratia, klik egin eta entzun gure sintonia!



IRITZIA >

Gutunak

Norbanakoaren egia

Hezkuntza eta politika, politika eta hezkuntza. Jakina da historikoki hezkuntza sistema estatuaren edo estatu-identitateen bizirau-penerako tresna lez erabilia izan dela, bai sistema sozialistetan, bai faxismoan oinarritutako sistemetan, estatu liberaletan... Baina aurreko mendean zein oraingoan egon diren bestelako hainbat hezkuntza planteamendu erreparatuta, badira pertsonak sortzeaz aritu direnak ere, norbanakoak bere nortasunean eta bere ingurukoenganako harremanetan diharduen hezkuntza; partaide den nazioaren garapenerako jarduteko tresneria eta prestakuntza emango dion hezkuntza.

Argi dago, edo argi geratzen da historiari erreparatuta, zer nolako garrantzia duen hezkuntza sistemak bere osotasunean bai gizarte baten bai sistema soziopolitiko baten barnean, estatu zein estatu gabeko nazio batean. Nire uste apalean, eta uste dudanez beste askorenean ere, orain arte esandakoak ez datoz guztiz bat gaur egun daukagun hezkuntza sistemarekin. Eztabaida luzeak, interesez beteak zein antzuak, sortu ahalko lirake orain hezkuntza sistema nola antolatu, zein metodo jarraitu edo zer irakatsi behar denaren inguruan... Eta aurrerantzean ere eman beharko dira, baina aldatetarik ez dira egun batetik bestera ematen, eta hezkuntza sistema duin zein eraginkor baten helburuak beharko du bere denbora. Bien bitartean bada zerbaite herri honetako biztanleok, gurasoek zein ikasleek, egin dezakeguna. Orain arte emandako aurrerapausuak aurrerako bidea jarraitu behar dute, ezin dugu utzi gure hezkuntza sistema antzinako adoktrinamendurako instituzio bilakatzea. Kostata izan bada ere, lortu genuen kristautasunean oinarritutako erlijioa derrigorrezko hezkuntzatik kentzea (honenganako fededunei errespetuz, mundu osoan zehar existitzen diren erlijioen ikuspegi alderdikoi bat besterik ez baita) eta orain, nortzuek eta hau posible egin zutenek, gaur egun herri honetan bizi dugun gatazka eraman nahi dute gure eskoletara, gure seme-alaben geletara; baina ez gatazka honetan aktiboak diren alde guztiak, ez, ustez beraienak diren biktimak eramanda. Ez al zuten esaten ez zeudela maila ezberdinetako biktimak?

Azkenaldian maila soziopolitikoan mugimendu asko ematen ari dira, eta gehienak gaur egungo Eusko Jaurlaritzan zein Espainiako Gobernuan dagoen alderdi politikoaren agintea kolokan jartzen dutenak. Langabezia tasak, ezker independentistaren indar metaketak, botere judizialaren neutraltasun eza agerian uzten duten aktuazioak...

Arrazioa nork ez duen (nork duen esatea gaitzagoa baita) gero eta ageriago geratzen ari den honetan, beraien zentzugabeke beste inposaketa baten atarian gaude.

Gure eskolatan baditugu hainbat arazo konpontzeko, eta horietako batzuk seguraski azkenaldian hainbeste aldarrikatzen den hiritartasunarekin zerikusia dute, ikasleen arteko bullyinga, irakasle batzuen inefektutasia, frakaso eskolarra... Eta hezkuntza sistemak guztion laguntza behar du arazo hauek ekiditeko. Baina laguntza, ez gidaritza! Hezkuntza sistemari dagokio inolako injerentzia politikorik gabe bertan ematen diren ikasgaien hautua egitea, eta hauen metodologiaren planifikazioa egitea gizartearen oneritziarekin. Ez dut uste, gaur egun gure ikasleek dituzten beharizan guztiekin, herri honetako zati baten egiaren zabalpen partidista bat denik, ez batzuen, ez besteena.

Ez zaie, ba, herri honetatik kanpo bizi diren eta baita hemen bizi diren batzuei ahoa bete ikastoletan haurrei ikuspegi partidista eta interesatua erakusten zaiela esanez, inolako frogarik gabe, adoktrinamendu hitza erabiltzera ailegatu arte. Ba, barkatu bai-

na nik, behintzat, orain arte ez dut ikastola bat berean ere ikusi ikasgai baten barnean orain proposatzen dutena bezalako barbaridade bat egiten, ezta planteatzen ere.

Noski, bakoitza, bakarka edo taldean, bere egia zabaltzeko libre da (nahiz eta herri honetan batzuei horretarako eskubidea ere urratzen zaien), baina ez horretarako guztion den hezkuntza sistema erabilia.

Beraien egia zabaldu nahi badute, egin dezatela. Dei egin diezailetela ikasleei atseden-orduan edo klaseak bukatu ostean beraien emandako hitzaldietan parte hartzeko. Zeren beldur dira? Apur batzuk gerturatuko diren beldur? Beraien egia, egia ote den begiratu dezatela.

Ainhoa Arizmendiarieta – Pedagogiako ikaslea

Eraiki justizia, sortu etorkizuna! Caritas Tabiraren kanpaina berria apirilaren 18an

Duela hiru hilabete, Elizbarruti honetako Caritasen hurrengo kanpaina prestatzen ari ginen, Eraiki justizia, sortu etorkizuna!, gure kristau-komunitatearen dimentsio unibertsalaz sentsibilizatzeko, Haitiko lurrikarak astindu gintuenean.

Eta esan behar dugu gure parrokitako, komunitateetako eta taldeetako errealitate ugarien erantzunak gainezka egin digula, tragedia itzaropen bihurtuz.

Beraz, esaezue: eskerrik asko!

- Zuen maitasun-adierazpen eskuzabalagatik, pobrezia-egoerak, hemengoak edo hangoak, harrapatutako pertsona guztiei zuzendua.

- Benetako senidetasun unibertsala eraikitzeagatik, eta arduratzen zaretelako bete daitezten "justiziaz eman behar dena karitatezko laguntza moduan ez emateko kristau-eskakizunak" (Lai-koen Apostolutzari buruzko Dekretua).

Izan ere, otoitzarekin, gogoetarekin eta elkartasunezko penitentziarekin batera, 600.000 eurotik gora jaso dira, Bizkaian bakarrik; Tabira eskualdeko parrokiek 20.000 euro batu zituzten, adibidez; eta, informazioa eskatu da Haitiko gure anai-arrebei eta beraien beharrei buruz, epe laburrera ez ezik etorkizunari begira ere, baita Caritasen herrialde horretan dituen berreraikitze-planeri buruz ere.

Hala ere, karitatea ez da bakarrik mugitzen egoera berezietako bulkadengatik. Errealitatea sakonki aztertzen dugunean, gaitzen ondorioak arintzeaz gain, zergatiak ezereztu behar dira, ahal den neurrian. Kanpaina hau aukera bat da karitatearen dimentsio unibertsalaz sentsibilizatzeko, gure ekintzek pobretutako herrialdeetan sortzen dituzten eragin ikustarazteko eta Bizkaiko kristau-komunitate moduan, Caritasen bidez, egiten dugun lan etengabea ezagutarazteko.

Gaur, inoiz baino gehiago, "pobrezia mapamundia atsekabegarria da. Garrasi isil eta tinkoa bilakatzen da". Gure komunitate ez da axolagabe agertzen sufrimendu horren aurrean, ez dio bizkarra eman nahi garrasi horri.

Ebanjelioak, munduarentzako Berri Onak, bultzatu egiten gaitu ahots horiek entzuterara eta Jainko Aitak Kristo Bepiztuari isuri zion Espirituarekin bat datorren erantzuna ematera.

Informazio gehiago: www.tabira.tk

Durangoko Caritas

Sei hankako mahaia



Carmen Sampedro EA

Berdintasunaren bila gabiltza

Gaur egun emakumeen bizitza gure aitita-amamenarekin konparatuz, asko aldatu da. Baina, hobeto bizi al gara oraingo emakumeok?

Emakumeak etxetik kanpo lan egiten hasi ziren. Honek ondorio positiboak ekarri ditu: profesionalki aurrerapen aurrerak, independentzia ekonomiko, politika arloan parte hartzea... Baina desabantailak ere bai: orain emakumeon lana bikoiztu egin da; etxekoa eta kanpokoa. Nahiz eta gizonen etxeko lanetan gero eta gehiago parte hartzen duten, arduragusia emakumeona da kasu gehienetan. Lan munduan lanpostu berean emakumeok diru gutxiago irabazten dugu hainbat lanbidetan.

Goi mailako postuetan gehienak gizonetako dira. Gobernuak emakumeen presentzia areagotzen saiatu dira, baina oraindik badago asko aldatzeko. Eta kasu larriena emakumeen kontrako indarkeria da. Noiz amaituko da egoera hau?

Zaldibarko Udalak berdintasunaren ildotik ikerketa bat eta lan proposamena egin du

Lan asko falta da egiteko. Ildo honetan, Zaldibarko Udalak ikerketa bat egin du eta horren ondorioz lan proposamen bat planteatu du.

Ia denon artean proiektu hori aurrera eramaten dugun berdintasunerako urrats gehiago emanez.

Goi mailako postuetan emakumeen presentzia areagotzen saiatu arren, asko dago egiteko



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko apirilaren 16a - 9. urtea - 369 zk.

Laguntzailea: 

Eta honako Udal guztiak:		
Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



BIZKAIKO BILDOTSA

ERRALDE
HILTEGIA

HARATEGIAK

ABADIÑO
Teo

BERMEO
Izarzugaza
Barturen
Emilio

BILBAO
Iñaki
Fco. Javier Atutxa

DURANGO
Rafael Agirre
Gallastegi
Pablo Areitio
Jose Luis Etxaniz
Olabe

ERANDIO
Luis Angel

GALDAKAO
Javier Sagasti

GERNIKA-LUMO
Iturbe Anaiak
Jesus Maria Martija
Teresa Arrien

IURRETA
Alberdi prekozinatuak
Javi Cebada

MAÑARIA
Rafael Bizkarra

ONDARROA
Belaustegi anaiak

SANTURTZI
Barquin

JATETXEAK

AMOROTO (OLETA)
Ibaigane


BERRIZ
Pedro Juan
Ganeko Etxe
Toki Ona
Ereña

LA ARBOLEDA
Meaztegi Golf

MUXIKA
Astei



Askatasun etorbidea 48
48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48
Fax: +34 94 621 77 66



AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 18an, 18:00etan
HIJOS DE LAS ESTRELLAS

Dantza emanaldi berezia, batez ere umeengan pentsatutako dantza ikuskizuna Da. Te. dantza konpainiaren eskutik. Dantza eta musikaz baliatuz ume zein helduei munduaren sorrera zelaz gertatu zen kontatuko digute, eta gizakia Lur planeta apurka-apurka hondatzen zelaz dabilen erakustiko dute San Agustinen.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> **'Artea'** apirilaren 16an, 17:30ean, Kultur Etxean.

ERMUA

>> **'Humanus Comicus'** apirilaren 16an, 22:15ean, Lobiano Kultur Gunean. Niño Costriniren eskutik.



>> **'Ellas bailan solas'** apirilaren 17, 19:45ean, Orbe Kardenalaren plazan.

>> **Haurrentzako antzerkia** 'Krataskacia' apirilaren 17an, 17:00etan, Lobiano Kultur Gunean.

ZORNOTZA

>> **'Julio Vernerren azken bidaia'** apirilaren 17an, 18:00etan, Zornotza Aretoan.



BESTEAK

DURANGO

>> **Javier Mañón umoregilearen ikuskizuna** apirilaren 22an, 23:30ean, Misarben.

ERMUA

>> **Kamiseta bat margotzeko tailerra** 12 eta 14 urte bitarteko gazteentzat, apirilaren 17an, Betiondo Kirol Gunean, 16:30etatik 18:00etara.

IURRETA

>> **Udalekuetarako izen-ematea.** Udaleku ibiltaria Urbasatik Elizondora, uztailearen 1etik 14ra, eta Udaleku Finkoa Ozaetan, uztailearen 14tik 26ra. Kimuak antolatuta. Informazioa gehiago kimuak@kimuak-elkarte.com, edo 665 72 82 13, 94 620 03 42 telefonoetan.

>> **Iurreta Txirrindulari Elkartek ibilbideak antolatu ditu** apirilaren 17 eta 18an 09:00etan Iurretan.

ZALDIBAR

>> **Gazteleku,** apirilaren 16tik 18ra, 12-16 urte bitarteko gazteentzat, 16:00etatik 20:00etara, Gaztelekuan.

>> **Zapatublai** apirilaren 17an, 16:00etatik 19:00etara.

ZORNOTZA

>> **Gauero, Gaztetxoentzako** (10-15 urte) gaueko aisialdi programa, 20:00etatik 23:00etara, apirilaren 16 eta 17an, **'Ole Ole!!!'** Zelaieta Zentroan.

>> **Gazte Txokoa,** 14 urtetik gorakoentzat apirilak 16, 23 eta 30ean, Zelaieta Zentroan.

>> **GR-98 azte Urdaibaiko biosfera erreserbari itzulua,** apirilaren 17an Ereño-Laida. Izen-ematea eta informazioa Zelaieta Zentroko harreran.

DANTZA

DURANO

>> **'Hijos de las estrellas'** familia giroan gozatzeko umeentzako dantza ikuskizuna, apirilaren 18an, San Agustinen, 18:00etan.

DEIAK

DURANGO

>> **Adinekoentzat ekintzak** Durangoko Adinekoen udal egoitzan. Izen emateko azken eguna apirilaren 23an. Informazio gehiago: 94 603 0000 edo 94 620 0321 telefonoetan.

>> **Errepublikako Eguna ospatzeko** Durangoko PSE-EEK, apirilaren 17an, 10:00etan, Mirugaineko igoera antolatu du.

IURRETA

>> **Astelehenero jaiak antolatzeko batzarrak** egingo dira, 20:00etan, IMIko lokaletan.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> **'Inpresioak'** Arte eta Historia museoan maiatzaren 2rarte ikusgai, Beitu Art Galleryren eskutik.

ELORRIO

>> **Gorputz solidoen teoria eta zoriontasuna (umeentzako kontatua)** Fernando de Vicente artista Durangarraren lanak egongo dira ikusgai apirilaren 29rarte Iturri Kultur Etxean.

ERMUA

>> **'Margoa'** Isabel Garciairen erakusketa, apirilaren 19tik maiatzaren 2ra ikusgai, Lobiano Kultur Gunean.

IURRETA

>> **Gizarte Ongizatea. Ibarretxe kultur etxean erakusketa** **'Welcome-Ongi etorri- Bienvenido/a'** apirilaren 23rarte.

ZORNOTZA

>> **'Bosteko 2010-01-27' erakusketa.** Elena Goñi, Ramón Pérez, Ignacio Sáez, Leire Ugalde. Apirilaren 28rarte ikusgai.

>> **'A mesa puesta'** Laka apirilaren 24tik maiatzaren 28ra.

HITZALDIA

ERMUA

>> **'Zer (kristo, arraio, demontre) egin behar dugu euskararekin?'** Hizlaria Joxerra Garzia idazle eta irakaslea, ahozotasunaz eta jendaurreko hizketari buruzko hitzaldia eskainiko du, apirilaren 21ean, 19:00etan, Lobiano Kultur Gunean.

IURRETA

>> **Guraso eta hezitzaileentzat hitzaldiak,** apirilaren 19 eta 20an, 18:30ean, Kultur Etxean.

ZALDIBAR

>> **Julian Iantziaren hitzaldia** apirilaren 17an, 17:00etan, Gaztelekuan.

IKASTAROAK

BERRIZ

>> **Doako ardo dastaketa ikastaroa** apirilaren 19tik maiatzaren 10era, astelehenero, Kultur Etxean egingo da, 18:00etatik 20:00etara. Guztira, lau saio izango dira.



>> **Neska gazteei zuzendutako sexualitate tailerra,** 13 eta 16 urte bitarteko neskei zuzendutakoa, apirilaren 16an, 18:00etatik 20:00etara. Parte hartu nahi duten neska gazteek ikastetxean zein udaletxean eman dezakete izena.

ELORRIO

>> **'Los fantasmas femeninos que me persiguen: La loca, la Bruja, La puta'** maiatzak 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an, Emakume Eskolan. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino bi egun lehenago amaituko da. Udaletxean eman behar da izena, bestela, postaz egiteko aukera ere badago.

DURANGO

>> **Komiki ikastaroa,** ekainaren 24a arte, eguenero, 18:00etatik 20:00etara, Udal Liburutegian.



>> **Zaindu programaren baitan,** Durangoko adinekoen udal egoitzan: **Norbere burua zaintzea,** ikastaroa apirilaren 21ean eta taldeko laguntza psikologikoa apirilaren 20an. Ordua: 17:30-19:30.

>> **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> **Kontserba begetalak eta mermelada egiten ikasteko ikastaroa,** apirilaren 28rarte, 18:00etatik 20:30-21:00etara. Izena emateko: Berbaro elkartera 946201918 telefonora deitu. Plaza mugatuak; 16 lagunentzako lekua dago.

ERMUA

>> **Ogigintza eta pintxogintza,** apirilaren 29rarte. Izen-ematea Lobiano kulturunean edo 639 414 205 telefonora deituz.

IPUINAK

BERRIZ

>> **Munduko ipuin kontalariak, Nora Lúa+ Luciano Federico** apirilaren 16an, 22:00etan, Liburutegian.



DURANGO

>> **Munduko ipuin kontalariak, Christian Atanasiu (Alemania),** apirilaren 16an, 20:00etan, Liburutegian.

ELORRIO

>> **Ipuin kontalariak: 'Munduko kontalariak,** apirilaren 16an 11:30ean (eskolarra) Mirta Portillo (Kuba) eta 22:00etan Nunila López (Katalunia) + Christian Atanasiu (Alemania). Bost kontinenteetako kontalari hauek hainbat istorio kontatuko dizkigute; umorea nagusi duten istorioak, egunerokoari buruzkoak, ipuin tradizionalak...

IURRETA

>> **Ipuin kontalaria.** Alaitz Muroren emanaldia, apirilaren 16an 18:00etan, Liburutegian, 5 urtetik gorakoak, Nazioarteko Haur-gazte Liburuaren Egunaren baitan.

JAIK

OTXANDIO

>> **Udaberriko Jaia** apirilaren 17an, 11:30ean, gazte asanbladen arteko eztabaidak. 13:30ean, Puzzle Erraldoia, ondoren bertso aldarrikapen poteoa. 15:00etan, bazkaria, ondoren kantu-jokoak. 19:00etan, kalejira talde sorpresarekin. Gauean kontzertuak: Emon eta Akerbeltz.



DURANGO

>> **Pazko jaia** apirilaren 17an, Tabira Txiki elkartearen eskutik San Jose Maristak ikastetxean 17:30etik aurrera. Euro baten truke hainbat jardueretan parte hartzeko aukera, jasotako dirua Rabateko (Marokoko) umezurtztegi baten egingo duten auzolanbidean erabili dute.

LITERATURA

ERMUA

>> **XVI. Ermua Hiria literatur saria.** Literatur lehiaketa honek ohiko narratiba eta olerki modalitateak ditu. Lehiaketak 400 euroko sariak banatuko ditu narratiba eta olerkien atalean. Gaia librea eta autoreak aukeratzeko da. Lanak maiatzaren 7a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago Liburutegian.

IURRETA

>> **Ikima Tailerraren baitan 'Ibilbide Literarioak'** antolatu dituzte apirilaren 16an, 17:30ean, Liburutegian.

- » **Irakurleen Txokoa: 'A sangre fría'** apirilaren 20an, 19:00etan, Liburutegian.
- » **Irakurleen Txokoa: 'Zinea eta literatura'** apirilaren 21ean, Harkaitz Canoren eskutik, 19:00etan Liburutegian.

LEHIAKETA

BERRIZ

- » **Kaleko Pintura Lehiaketa** apirilaren 24an egingo da, 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake. Goiz bateko lehiaketa izaten da, 09:00etatik 10:00etara euskarriak zigitatuko dira, eta gero eguerdiko 14:00etatik 14:30era aurkeztu. Irabazlearen berri egunean bertan 18:00etan jakitera emango du epaimahaiak, Kultur Etxean.
- » **Jaietako Kartel Lehiaketa** San Pedro eta Santa Isabel jaietarako irudia aukeratzeko lehiaketa. 60X40 zm-ko neurriak izan beharko ditu derrigorrez eta 'San Pedro eta Santa Isabel Jaiak 2010' leloa idatzita agertu beharko du. Lanak maiatzaren 14rako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira.
- » **2010-2011 Eskola Agenda.** Udalak datorren ikasturterako eskola agenda argitaratzeko asmoa dauka. Gazteei zuzendutakoa izango denez, eskola agendaren aurreko eta atzeko azalak diseinatzeko lehiaketa sortu du gaztetxoaren artean. Berrizko ikastetxean matrikulatuta dauden 12 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Lanak banaka zein taldeka aurkeztu daitezke, maiatzaren 14rako.
- » **I. Mural Lehiaketa** Berrizburu futbol-zelaiaren aurrean dagoen frontoiko horman irudi bat egiteko. Artistek maiatzaren 14rako Udaletxean zein Kultur Etxean zirriborroa aurkeztu beharko dute.



IURRETA

- » **Aita San Miguel jaietako kartel lehiaketara** aurkezteko azken eguna ekainak 18 kultur etxean.

MUSIKA

BERRIZ

- » **The Capaces, Adrenalized, Ostikada** apirilak 17an, 22:30ean Hiltegi Berrizko gaztetxien.

DURANGO

- » **Doctor Deseo**, apirilaren 16an 22:00etan, Plateruenean.
- » **Haitin aldeko kontzertua**, Tenore eta pianojolea Santa Ana elizan apirilaren 17an 20:15ean

ERMUA

- » **Mariachi Real Azteca kontzertua**, Udaberriko jaiaren ekitaldiaren barnean, arratsaldeko 19:45ean apirilaren 17an. Orbe kardinalaren plazan.

ZALDIBAR

- » **Otxandio OI Handi abesbatza eta Zaldibarko Koral abesbatzaren** kontzertuak, San Andres Parrokoan, apirilaren 17an, 20:00etan.

ZORNOTZA

- » **Euskal Strong Festival** apirilaren 17an, 22:00etan, Idaba Rock Cluben. Luxuzko kartela iragarri dute: Torazines, Sermonds eta Bittel Honey.

ZINEKLUBA

DURANGO

- » **'Precious'** filma ikusgai, apirilaren 22an, arratsaldeko 20:30ean, Zugaza zinema aretoan.



ERMUA

- » **'El secreto de sus ojos'** ikusgai, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean.



Apirilaren 16an, 22:00etan

DOCTOR DESEO

'Deseo: Cartografía imposible' azkeneko lana aurkeztera dator Doctor Deseo Plateruenera. Abesti guztietan desioaren mundua agertzen digute; gaiari dagokionez monografikoa da, baina orain arteko disko askotarikoena da, hainbat estilo eta doinu uztartzen ditu-eta; rocka, flamenco doinuak, ekialdeko musika, boleroak eta bals eritimoak... Bi urte igaro dira Doctor Deseo Plateruenean egon zen azken alditik, eta desiatzen dago berriro ere lan berria zuzenean aurkezteko. Hamabigarren diskoa eskainiko digu Doctor Deseok taula gainean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Alicia en el país de las maravillas 3D
 Zuzendaria: Tim Burton
 barikua 16: 19:00/ 22:00
 zapatua 17: 16:45/19:30/ 22:30
 domeka 18: 16:45/19:30/ 22:30
 astelehena 19: 19:00/ 22:00
 martitzena 20: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia
La cinta blanca
 Zuzendaria: Michael Haneke
 zapatua 17: 22:30
 domeka 18: 20:00
 astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema
Ponyo Itsaslabarrean
 Zuzendaria: Goro Miyazaki
 domeka 18: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
Corazón rebelde
 Zuzendaria: Scott Cooper
 domeka 18: 20:00
 astelehena 19: 20:00



Umeendako zinema

Cazadores de dragones
 Zuz.: Guillaume Ivnel y Arthur Qwak.
 domeka 18: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 16**
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Zapatua, 17**
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
 09:00-13:30 (*14:00)
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
 • Sanroma/ Sagastizabal/ De Diego/ Balenciaga/ Unamunzaga/Etxebarria/ Mugica/Campillo
 • Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
 09:00-22:00
 • Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Matiena)
- Domeka, 18**
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
- Astelehena, 19**
 09:00-09:00
 • De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
 09:00-22:00
 • Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
- Martitzena, 20**
 09:00-09:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Eguaztena, 21**
 09:00-09:00
 • Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Eguena, 22**
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
 09:00-22:00
 • Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
- DYA94 620 28 00**
- Gurutze Gorria94 681 09 49**
- Osakidetza94 600 72 00**
- Ertzaintza94 466 93 00**
- Suhiltzaileak112**
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Durango94 681 02 32
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matiena606 459 988
- Durango Geltokia.....946 811 001
- Goco Tour946 202 860
- Tele Taxi944 102 121
- Radio Taxi Bizkaia .944 269 026
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano.....946 582 854
- Iurreta946 201 565
- Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
- Atxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
- San Agustin94 603 00 21
- Zornotza Aretoa94 630 01 68
- Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txauporta KE94 620 36 47
- Errota KE94 466 94 16
- Gorabide94 681 24 35
- Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
- Nekazal bulegoa94 681 15 20
- Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
- Butanoa (UME).....94 681 08 77
- Araztegia94 620 28 00
- Foru Ogasuna.....94 681 07 42
- INEM Durango94 681 12 96
- Gizarte Segurantz 94 681 49 58
- Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
- Astola94 620 29 29
- Igerilekua
- Atxondo94 623 14 38
- Berriz94 682 43 74
- Durango (Landako).....94 621 51 30
- Durango (Tabira)94 621 51 50
- Elorrio94 682 10 27
- Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 19º BARIKUA** ☁️
 Udaberriko giroa izango dugu. Arratsaldean hodei tarte batzuk agertuko dira, barnealdean bakarrik. Hego-ekialdeko haize ahula ibiliko da, tarteka bizi. Giro atsegina izango dugu.
- 22º ZAPATUA** ☁️
 Aroa ezegonkortu egingo da. Zeruan hodei gehiago agertuko da eta arratsaldean zaparradak bota ditzake. Eki-osagaiko haize ahula ibiliko da, tarteka bizi. Temperaturan aldaketa gutxi; gradu pare bat igo daiteke.
- 23º DOMEKA** ⚡️
- 22º ASTELEHENA** ⚡️
- 21º MARTITZENA** ⚡️



LABUR BIRA

FILM LABURREN VII. ZIRKUITUA

Apirilaren 22an, 20:00etan Plateruena kafe antzokian



AHATE PASA

KOLDO ALMANDOZ
2009 (12')



ZORION HUTSA

ESTIBALÍZ ARIZ, ITZIAR FRIJO, JANIRE FERNANDEZ,
VANESSA MARTIN, GORKA MONTIEL ETA MALEN ULAZIA
2008 (13')



NORA ZOAZ

INIGO SANZ
2009 (4')



CLARK & BORIS

JOSE LUIS BARREDO ETA INIGO GARCIA
2009 (11'30'')



ODISEA ETXEALDEAN

URKO MAUDUIT ETA JOSEBA SALABERRI
2008 (4')



KAMERATOIA

NIREAK DIRA! KAMERATOIA 2009 (2')
NEGUKO HITZAK KAMERATOIA 2009 (3'20'')



ESAIOK

ARKAITZ BASTERRA
2009 (7')



AMONA PUTZ

TELMO ESNAL
2009 (9')

AED (Arrasate), Aizpea (Iruizun), Ametza (Ultzama), Bai esan (Santurtzi), Basalamina (Laudio), Berbaizu (Deustua), Berbaro (Durango), Dobera (Hernani), Euskal Birusa (Ermua), Galtzaundi (Tolosa), Ganoraz (Arratia), GEU (Gasteiz), Hitzara (Ordizia), Inistorra (Umieta), Irun Iruten (Irun), Korenka (Mutriku), Kamikaluze (Atarrabia), Manuel Larramendi (Betemi), Noaua (Usurbil), Pil-Pilean (Sorluze), Ttakun (Lasarte-Oria), Tiki-itaka (Arabar Errioxa), Tximintx (Derio), Txiritola (Aramaio)

www.topagunea.org

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



LAGUNTZAILEA

berria

KIROLAK >



Kadeteak Elorrioko harbidean

Zapaturako Bizkaiklasik izeneko lasterketa antolatu du Elorrioko Txirrindulari Elkar-teak, Euskal Herrian berritzailea dena. Kadetei zuzendutako lasterketak San Agustingo harbide-tik eramango ditu txirrindulariak. Pedro Horrillok, lasterketaren aita-bitxiak, ederto definitu zuen lasterketaren funtsa: "Lasterketa askotan herri alboko mendaterik altuenekin osatzen dute ibilbidea. Txirrindularitza ez dela eskalatzaile izatea bakarrik erakutsi gura dugu. Ordekalaria eta klasikomanoak ere badaude, sekulakoak gainera, eta gazteei dena probatzeko aukera eman gura diegu". Lasterketak laguntzaile ditu, besteak beste, Elorrioko Udala eta Bizkaiko Txirrindulari Federazioa.

Lasterketak 50 kilometro dauzka, eta horietatik 417

metro San Agustingo harbidean dira. Bihar 12:00etan abiatuko dira gazteak Zeanuriko plazatik. Lehengo errepide nazionaletik Igorre, Lemoa eta Zornotza zeharkatuko dituzte. Zubieta poligono inguruko bidegorrian kilometro bat egin, eta lurreta eta Berriztik igarota, Miota igoko dute. Elorriora sartu aurretik ezkerretara hartu eta San Agustingo harbidean itzuli bat egingo dute. Ondoren, Elizalde, San Anton auzunea, San Eloy, Urkizu kalea eta Argiñeta etorbidea zeharkatu eta San Agustingo zirkuituan beste itzuli bat eginda helmugaratuko dira.

Herrian zeharreko zati batzuetan bide estuak aurkituko dituzte. Beraz, "irabazleak indartsua izateaz gainera, aztia eta trebea izan behar du, postuak

irabazi eta toki egokiak hartzeko", adierazi zuen Agustin Garcia antolatzaileetako batek.

Mutil zein neska

Guztira, 116 txirrindularik parte hartuko dute; gehienak mutilak dira, baina nesken talde bi ere ibiliko dira. Mutiletan Zornotzako Txirrindulari Taldeak, Durangoko Beste Alde eta Elorrioko Gaurisa Renault taldeek ordezkatu dute Durangaldea. Irabazteko faboritoen artean daude Beste Aldeko Alain Ramírez eta Gaurisa Renaulteko Haritz Hernández zein Xabi Goikoe-txea. Nesketan lurreta Emakumeen Bira Ciclos Iturriaga-Auton Elorrio da eskualdeko taldea, eta hurretik segitu beharko da Ziortza Isasi eta Carina Aguileraen lana. ■ J.D.

24 Asteburuan hasiko da herri artekoa

Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa hastear dago. Eskualdeko bost herri lehiatuko dira: Abadiño, Atxondo, Berriz eta lurreta pilotan, eta Durango, pilotan zein zestan.

25 Mendizaleak, Anbotoko arriskuez

Joan zen asteburuan mendizale bat hil zen 'Inpernuko zubitik' erorita. Pasabide gaitza dela onartzen duten arren, sarritan geuk ipintzen ei dugu arriskua, arduraz ez jokatzegatik.

Eskualdeko bost herri lehian, Bizkaiko herri artekoan

Abadiño, Atxondo, Berriz, Iurreta eta Durangok parte hartuko dute



Pablo Berasaluze berriztarra aurkezpenean izan zen, Federazioko ordezkariekin batera.

Bizkaiko Herri Arteko Pilotari Txapelketari asteburu honetan ekingo diote. Urtero legez, kanporaketa sistemaren bidez jokatu dute (joaneko eta itzulerako neurketak egongo dira) kadeteen, gazteen eta nagusien mailan.

Abadiñok Gallartaren kontra jokatu du, eta lehenengo partidua etxean jokatu dituzte. Kanporaketaren irabazlea zuzenean final zortzirentarako sailkatuko da, eta Galdakaoren kontra jokatu du.

Iurretari Lekeitioren kontra lehiatzea egokitu zaio. Joanekoa lurretan jokatu dituzte, eta kanporaketaren irabazleak Bermeo zain izango du final hamaseirenetan. Berrizek ere lehenengo partidua etxean jokatu ditu, Bilboren aurka. Aurrera egiten duenak Zaratamoren

kontra jokatu du final zortzirenetan. Txapelketa behe-behetik hasiko duen eskualdeko azkenengo ordezkaria Atxondo da. Lemoan jokatu dituzte joanekoa. Kanporaketan gailentzen denak Igorre aurkituko du final hamaseirenetan.

Durangok txapelketari final hamaseirenetan ekiteko eskubidea irabazi zuen iaz. Santurtzi-aren eta Getxoren arteko parekatetik irtengo da Durangoren arerioa.

Durangok fase bat aurrerago ekingo dio txapelketari, iaz bikain aritu ostean

Gutzira, 36 herritako pilota eskola lehiatuko dira, iaz baino bat gehiago. Mallabiak aurten ez du herri artekoan parte hartuko, ezta Arrigorriagak ere. Aldiz, txapelketan ariko dira Berango, Santurtzi eta Munitibar.

Finalak ekainaren 27an jokatu dituzte, oraindik erabaki barik dagoen Uribe-Kostako herriren batean.

Zestán Durango

Zestán sei herri ibiliko dira eta tartean da Durango. Gainerako bostak Markina, Berriatua, Lekeitio, Getxo eta Gernika dira. Durangok Getxoren kontra jokatu du. Finala Durangon jokatu dute maiatzaren 29an, Pilotagazte jaiaren barruan.

Azkenik, palan hamar herri lehiatuko dira, eta eskualdeak ez du ordezkariarik. ■J.D.

Jaenek ez du promozioa jokatu, eta DRT aurrera doa

Joandakoa asteburu biribila izan zen Durango Ilarduyarentzat. Ligako azken bi sailkatuak —DRT eta Eibar— neurtu ziren Arripausuetan, eta durangarrek 20-14 irabazi zuten. Ondorioz, azken aurreko postua kendu zioten Eibarri, eta promozioan Jaen egokitu zitzaion. Baina bezperan Jaenek promoziorik ez zuela jokatu jakinarazi zuen, dirua arazoak medio. Beraz, DRT sailkatuta dago.

Orain mailaz igo gura duten lau taldeetatik baten kontra jokatu du. Uribealde edo Mallorkako Ponent taldeek irabazi dituzte joanekoak. ■J.D.

Kulturala eta Amorebieta aurrez aurre izango dira bihar

Aspaldiko urteetako lehiarik politena eskaini dezakete bihar Kulturalak eta Amorebietak. Kulturala zarpigarren dago play-off postuetatik bost puntura. Amorebieta bigarren dago, eta lau puntu ateratzen dizkio Beasain laugarren sailkatuari; puntu kopuru bera du Real Sociedad B liderrak.

Bestalde, ohorezko mailan Berrizek Gatikaren kontra jokatu du. Berriz azken aurreko dago sailkapenean eta Gatika azken bigarren; biek 25na puntu dituzte. Beraz, aurrerorik zuzenak bisitatuko du asteburu Berrizburu. ■J.D.

Leanizbarrutia eta Elorriaga Euskadiko txapeldun pistan

Unai Elorriagak (Cespa-Euskadi) eta Iban Leanizbarrutiak (Bidelan-Kirolgi) osatutako bikotea Euskadiko txapeldun —Madison modalitatetan— geratu da oraintsu Berrizko belodromoan izandako txapelketan. Emakumezkoen kadeteetan Ciclos Iturriaga taldeko Ziortza Isasi nagusitu zen eta Durangoko Beste Alde taldeko Iraide Garcia izan zen bigarren.

Bestalde, nagusietan eta Euskaldun Torneoan, Cafés Baqué taldeko Juan Sebastian Tamayo bigarren dago sailkapenean, 30 puntugaz. Martin Iraizoz liderrak 34 ditu. ■J.D.

Mikel Bilbao

•Radio Euskadiko kazetaria



Berria eta hankamotza

Asteburuan hasiko da aldaketaren buruz burukoa; hasi aurretik polemika ekarri duen txapelketa. Lehen ondorio moduan, aipatu behar dena da torneoak kanpoan utzi dituela pilotari gazteenak, Beroiz —iazko bigarren mailako txapelduna— Julen Retegi, Iker Arretxe eta Mikel Urrutikoetxea, esaterako. Txapelketa sorpresarako tarte barik geratu da. Imaginatu futboleko Errege Kopa Numantzia, Real Unión edo Alcorcón barik; urtetik urtera txapelketa irauli duten talde barik. Buruz burukoa *outsider* horiek gabe geratu da. Apetaren arabera aukeratutako zortzi pilotarik jokatu dute txapelketa. Irujok garbi esan zuen aurkezpenean: "Sistema honekin ni sekula ezin izango nintzen txapeldun izan". Ez zaio arrazoirik falta. Barriola eta Haimar Iako pilotariek ere argi utzi dute euren nahigabea. Julian Retegi berak ere goratu izan du ahotsik; 2010eko torneo sekula ez zuela jokatu izango aurreratu zuen.

Lehen mailako txapelketaren berrantolatetarako, bigarren mailakoan —modu okerrean 'promozio' txapelketa deituan— pilotari 'gazteak' utzi ditu; Peña, Zubieta eta Urberuaga... Aulestiko atzelariagaz egin dutenak ez du izenik. Iaz final laurdenetara iritsi zen —Haimarrek kanporatu zuen— eta aurten aurretiko partidua bi jokatu behar zituen. Lehenengoan galdu egin zuen Cabrerizoren kontra, eta ez zuen bigarrena jokatzeko aukerarik izan. Bigarren mailako lehiak badu beste kontraesan bat: irabazleak ez du 2011n lehen mailakoan jokatzeko ahalbidetzen. Beraz, promoziotik ez du ezer.

Baina badakigu enpresa-irizpidea, ekonomikoa, nagusitzen dela. Egutegian pisua galduta zuen torneoaren interesa berreskuratu nahi dute. Horretarako ez zegoen hainbeste aldaketaren beharrik; nahikoa zen Irujo eta Haimarren arteko hamar partidua antolatzea.

Rodrigo Sarralde xakeko Euskadiko txapeldunorde

Rodrigo Sarralde Euskadiko Txapelketako txapeldunorde geratu zen xakean, Zornotzan jokaturako txapelketan.

Bigarren jardunaldian rankingean lehenengo tokian dagoen Alejandro Franco nazioarteko maisuari irabazi zion; hirugarrenean, berriz, pieza beltzeekin jokatu, txapelketa irabazteko beste faboritoetako bat zen Rafa Alvarezen kontra

berdindu zuen. Lider iritsi zen zarpigarren eta azken jardunaldian. Mikel Huerga nafarraren kontra jokatu eta galdu zuen. Alejandro Francok bere neurketa irabazita, puntu erdira zeukan Rodrigo gainditu zuen.

Bestalde, zapatuan partidua arinen Bizkaiko Txapelketa jokatu dute Zestoan. Eskualdeko gure hiru taldeek parte hartuko dute. ■J.D.

Iñaki Lejarretak Espainiako Openeko lider segitzen du



Ikaragarrizko denboraldi hasiera ari da egiten Iñaki Lejarreta txirrindulari berriztarra (Orbea Racing Team). Espainiako Openeko lehen lasterketan —Banyolesen— bigarren egin zuen eta ondorengo biak —Huelvan eta Avilesen— irabazi egin ditu. Bere taldekide Ruben Ruzafa eta Julien Absalon er eederto dabilta eta, esaterako, Huelvan hiru taldekideak igo ziren podiumera. Lejarretak Espainiako Openeko sailkapeneko liderra da.

Adituarentxokoa

Mendiari norberak ipintzen dio arriskua, mendizale taldeen ustez

'Inpernuko zubian' hildako lagunaren harira, Alpino eta Erdella taldeen iritzia jaso dugu; ibilbide arriskutsuak egonagatik, arduraz ez jokatzeari deritzote arriskurik handiena

Alultzetik Anbotorako mendi gandarrean dago 'Inpernuko zubia'. Igarobide estua bat da, alde batera 300 metrotan behera jausteko hutsunea. Joan zen asteburuan mendizale bat hil zen handik behera erorita. Pasabidearen izena ez da besterik barik ipinitakoa. Hala ere, Alpino eta Erdella mendizale taldeko kideek argi dute Anbotoko gandarrean badaudela pasabide hori besteko arriskutsuak. Mendia ez da bere tokitik mugitzen; hari aurre egiteko jarrera aldatzen eiz da, mendizaletik mendizalera.

I. Calvo: "Segurtasun katea ipintzeak masifikazioa sortzeko arriskua ekarriko luke"



'Inpernuko zubia' behealdetik (irudiaren behealdean) badu pasabide errazago bat.

Iñaki Calvo Alpinoko lehen-dakariak "zaila" den pasabidea dela esanez definitzen du 'Inpernuko zubia': "Anboton bertan jende gehiago hil da. Arriskua guk sortzen dugu. Esaterako, azken mendizalea hil zen eguna haizetsua zen".

Aspaldiko urteetan mendizaletasuna hazi egin da. Askok erantzukizunez egiten dute ibilbidea, baina badira arriskua ikusten ez duen hainbat ere. Calvok argi du Anboto lako mendira joatea "kontu serioa" dela: "Mendian gabiltzanean ernegatu egiten gara sarritan; mendizaleak zapatekin ikusten

ditugu udan eta zapatillekin neguan. Hori baino kontu handiagoa eduki behar da".

Maite Arginzoniz Erdellako lehen-dakariak ere Anbotok hainbat toki zail dituela dio: "Oro har, haitzeko mendi guztiak dira arriskutsuak. Edonon laban egin daiteke, esperientzia izan arren. Udala ez da hainbeste entzuten, baina han ere hil izan da jendea. 'Inpernuko zubia' ez nuke esango zonaldeko beste toki batzuk baino arrikutsuagoa denik.

Behealdetik pasatzeko modua ere badago. Adi ibili behar da, eta ahal bada bakarrik ez joan".

Hainbat bider aipatu izan da 'Inpernuko zubia' lako pasabide-etan mendizaleen segurtasuna bermatuko lukeen kate bat ipintzeko komenentzia. Calvo ez da irtenbide horren aldekoa: "Arrisku bat ikusten diot: masifikazioa. Beharbada jende pilo bat etorriko litzateke eta kateak, higaduragatik-edo, inoiz hutsegingo balu berez konprometitu den

pasabidearen arriskua handitu egingo luke". Azkenik, zuhurtziaren aldeko aldarria egiten dute. "Mendiko ibilbidea ez da tontorrean amaitzen, etxera heltzean baino", dio Arginzonizek: "Sarritan jaitsieretan izaten dira ezbeharrak, jendea konfiantzagaz doalako". Calvok ere mendia "gaur edo hemendik hile bira hantxe" egongo dela dio: "Mendiak ez du hitzordurik huts egiten. Kontuz ibili ezik, norbera izango da falta dena". ■J.D.

Espainiako Federazioko ordezkariak Landakoko azpiegiturak bisitatzen

Kadete mailako txapelketa Durangon ebatziko da, Tabirakoren ekimenari esker



Saskibaloia kantxaren gaineko zehaztapenak eman zizkieten.

Ekainaren 8tik 13ra Espainiako kadete mailako txapelketako azken fasea jokatu da Landako kiroldegian. Tabirakoren 50. urteurrena dela-eta ekarri dute Durangora txapelketa. Txapelketa horren harira, eguaztenean Landakoko azpiegiturak bisitatu zituzten federazioetako hainbat ordezkariak: Espainiako Saskibaloia Federaziotik Alberto Gomez eta David Auritz etorri ziren; Euskadiko Saskibaloia Federaziotik Arturo Aguado, eta Bizkaitatik, German Monje.

Txapelketa honetan kadete mailako 12 talderik onenak batuko dira. Euskal ordezkari bakarra Donostiako Easo taldea izango da.

Unai Zamalloa omenduz

Bestalde, atzo emakumezkoen talde nagusiek jokatu behar zuen partidua atsedendaldian Unai Zamalloari urrezko intsignia jarri zion Tabirakok, 50. urteurrenako ekitaldien barruan. 17 urte gaz hasi zen Tabirakoren entrenatzaile legez. Gaur egun, Laiene Zornotza taldeko entrenatzailea da. ■J.D.

Sasikoari mailari eusteko aukerak amaitzen doazki apurka-apurka

Ohorezko A mailan liga amaitzeko lau jardunaldi falta direnean, Sasikoak jaitsiera postuan segitzen du. Jaitsieratik kanpora dagoen azken taldea den Tecuni Bilbok bost puntuko aldea ateratzen die. Beraz, asteburuan etxetik kanpora jokatu duten Corralesen kontrako lehia erabakigarria izan daiteke. Beheko postuetan dabilen beste talde bat Kuruziaga da euskal ligan: azken laugarrenak dira.

Goren mailan Mallabia Bastidak eta Ibaizabalek lehia estua daukate. Lehen bi tokietan daude puntuetara berdinduta. Lehen erregionalean Presion Breakek aurrekoen lortzatza galdu du, eta Abadiño-ko Lagunek aurreratu ditu. Amaitzeko, Mendibeltz lider dago bigarren erregionalean.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Amorebieta
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
(gizonak)
Elorrio - Lekeltio
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden
BIGARREN ERREGIONALA
Abadiño - Galdakao
Zapatuan, 17:00etan, Astolan
HIRUGARREN ERREGIONALA
Berriz B - Azkorri
Domekan, 11:30ean,
Berrizburun
Ezkurdi - Itugarpe
Zapatuan, 18:00etan,
Arripausetan
Extremeño - Artibal B
Domekan, 16:30ean, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
(emakumeak)
Iurretako - Berrio-Otxoa
Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelain

ARETO FUTBOLA
EUSKAL LIGA
Kurutziaga - Lagun Onak
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Mallabia Bastida - Artaromo
Domekan, 17:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Abadiño-ko Gaztetxe - Abadiño-ko Lagun
Zapatuan, 15:10ean,
Elorrioko kiroldegian
Presion Break - Mazusberri
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburu kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA
Gu Lagunak - Otxartabe
Zapatuan, 16:00etan,
Landako kiroldegian
Mendibeltz - Beseka
Zapatuan, 17:30ean,
Landako kiroldegian

SASKIBALOA
NAZIONAL MAILA
(lgoera fasea)
Tabirako Baqué - Ardoi
Zapatuan, 17:00etan,
Landako kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
(lgoera fasea)
Anbotopeko - Txurdinaga
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA
SAN PRUDENTZIO
TXAPELKETA
(final laurdenak)
Kadeteak:
- Garcia-Andueza / Labaka-Tolosa
Gazteak:
- Gallurralde-Jaka / Guaresti-Larunbe
- Arrieta-Aretxabaleta / Loban-Mina
Barikuan, 20:15ean,
Matienako pilotalekuan
Kadeteak:
- Ibarrondo-González / Atutxa-Hernández
- Ruiz-Sedano / Urkidi-Murgiondo
Zapatuan, 18:30ean,
Matienako pilotalekuan
BIHARKO IZARRAK
- Ezkurdi-Landaburu / Rico Aldape
- Yoldi-Gorrotxategi / Garralda-Merino
Eguenean, 21:30ean,
Mallabia I pilotalekuan
HERRI ARTEKOA
Berriz-Bilbao
Barikuan, 19:30ean
Iurreta-Lekeltio
Domekan, 11:00etan
Abadiño-Gallarta
Domekan, 17:00etan

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Ecopilas arduratuko da eskualdeko pilak Recypilaseran eramateaz

Pila bat naturan denbora luzean egoten da, izan ere, pilek 1.000 urte baino gehiago behar dute desagertzeko

Pilak biltzeaz arduratzeaz gainera, herritarrak kontzientziatzeko kanpainak ere egiten ditu Ecopilasek

Ecopilas fundazioaren eta Durangoko Amankomunazgoaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartu zuten osoko bilkuran

Ecopilas fundazioaren eta Durangoko Amankomunazgoaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartu zuten Astola Etxean egin zen azken osoko bilkuran. Hitzarmenaren ondorioz, Ecopilas fundazioa arduratuko da Amankomunazgoaren baitan dauden herrietan jasotzen diren pilak Zamudioko Recypilas enpresara eramateaz.

Pilen bilketa

Amankomunazgoak pilak batzuko 40 bat kaxa ezarriak ditu; Kultur etxe, liburutegi, udaletxe edo dendetan, esaterako. Kaxa hauek betetzen direnean Amankomunazgoa arduratuko da horiek bildu eta Santa Apolonia dagoen biltegira eramateaz, baina biltegitik Ecopilasek jasoko ditu, eta bera arduratuko da behar den moduan errezikla-

tzeko egin beharrekoa egiten. Pilen gaikako jasotzea eta sailkatzea egiten dute, eta tratamendua pilen tipologiaren arabera da. Botoi-piletatik, esaterako, destilazioa erabiliz merkurioa, burnia eta zilar kontzentratua berreskuratzen eta balorizatu egiten dute.

Hitzarmena sinatu aurretik Amankomunazgoa arduratzen zen eskualdean batzen zituzten pilak Zamudiako Recypilas enpresara eramateaz, beraz, abantaila nagusia, Marian Larrauri Amankomunazgoko presidentek azaldu duenez, denbora aurreztuko dutela da.

Kontzientziatzeko kanpaina

Ecopilas fundazioak, pilen garraioaz gain, Marian Larraurik, Amankomunazgoko presidentek azaldu duenez, herritarrak

kontzientziatzeko kanpainak ere egiten ditu, eta hori interesgarria da, izan ere, "pila bakar batek kalte handia egin dezake eta kutsadura handia sortzen du". Erlojuetan, kalkulagailuetan... erabiltzen diren botoi-pila batek, esaterako, 600.000 litro ur kutsatu dezake, eta manganesoa duten alkalina pilak 175.000 litro ur. Pila bat naturan denbora luzean egoten da, izan ere, pilek 1.000 urte baino gehiago behar dute desagertzeko.

Egun merkatuan gehien erabiltzen diren pilek ez dituzte euren konposaketetan merkurioa edo cadmioa lako metal astun toxikoak erabiltzen, baina, hala ere, erabilitako pilak beti pilentzako kontenedore edo kaxetan sartu behar dira, gero birziklatzeko.



anboto.iragarki**laburrak**.com

etxea saldu edo alokatu nahi baduzu
ostalaritzan lan bila nabil
non aurkitu baina?

mendiak zurituta daude jada, erabiltzen
ez duzun materiala duzu etxean?

liburuak diskoen truke hartu nahi
dituen norbaiten bila nabil

sofa berri duzu eta zaharrarekin
ez dakizu zer egin?

haurra koskortu zaizu eta dagoeneko
kotxea ez duzu behar?

zergatik joan bakarrik lantokira
autoa konpartitu dezakezunean?



Interneten

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 3 hilabetez
egongo dira zuen iragarkiak

Paperean

iragarki guztiak **doan**
ezer esan ezean 6 astez
egongo dira zuen iragarkiak

Kategoria berriak
Sare sozialetara loturak
Abisuak posta elektroniko eta SMS bidez
Bilatzaile garatuak

...



anboto.iragarkilaburrak.com

Nissan micra salgai. Egoera onean eta oso merke. 950 euro. Telefonoa: 610 415 511

Opel zafira 1.9 CDTI salgai. Opel Zafira 1.9 CDTI salgai. Telefonoa: 615 00 97 23

FURGONETAK
SALDU

Volkswagen multivan confortlive 2,5 tdi salgai. Volkswagen multivan confortlive 2,5 TDI. 130 cv, 3 urte eta 60.000 km. Guztiz prestatua eta berria lakoa dago. Interesatuak deitu:

620 58 86 33

GAINERAKOAK
SALDU

Neguko gurrpilak salgai. Salgai ditut neguko lau gurrpil bere ilantekin. Gupilen tamaina: 185/55 R14. Ia berriak, kilometro gutxi eginda. Telefonoa: 679 31 75 59 (Nerea)

Harremanak
LAGUN BILA

Pisua osatzeko laguna behar da Elorrión. Lagun bat behar da pisua osatzeko.

Telefonoa: 686 991 631

GAINERAKOAK

Txoko bat sortzeko jendea behar da Durangon. Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Oso interesgarria. Interesatuak deitu hona: 605 711 331 edo 630 839 325

Aisia/kirola
KIROLAK

Durango. Sailfish Vibrant gama altuko neopreno berria salgai. Gizonezkoen 15 neurririkoa da (165-178cm/68-

75kg)

ANIMALIAK
SALDU

Txakurkumeak salgai. Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetzeko dauzkate. Interesatuta egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 645 70 91 38 (Enrike)

GAINERAKOAK
EMAN

Biodantza ikastaroa. Biodantza ikastaroa eskaintzen dut, barikuetan, Elorrioko Lourdes ikastetxean. Telefonoa: 626-661292

noa: 626-661292

Familia/etxea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

Ohe artikulatua. Ohe artikulatua salgai, orain dela hiru hilabete erositakoa. Egoera onean. Mugikorra: 639957569

HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK
SALDU

Bikientzako aulkia. Bikientzako McLaren markako aulkia. 2007an erosia.

Telefonoa: 655742241

Haurrak eramateko kanguroa. Bular aldean haurrak eramateko kanguroa. 18 euro. Telefonoa: 655742241

Haurrentzako eskaileretarako segurtasun barerra. Hainbat luzeratarakoa. 40 euro. Tel.: 655 742 241

Haurrentzako moises antzeko sehaska. Leander markakoa, hiru hankakoa. 2007an erositakoa eta 9 hilabetetan bakarrik erabilia, egoera ezin hobean. Kolortxoia, hiru hankakoa eta be-

loa barne, izararik ez. 190 eurorotan. Tel.: 655 742 241

Haurrentzako ohea eta sehaska. Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm. Koltxoiak bi altueratan ipintzeko aukera du. Latex-eko Ikea-koa ez den koltxoia barne. 95 euro. Telefonoa: 655 742 241

Kotxerako 9-18kg bitarteko aulkia. Kotxerako aulkia 9-18kg bitarteko aulkia. 40 euro. Lourdes Isasi Salterain. Telefonoa: 699 45 43 69

Paseatzeko aulkia. Paseatzeko aulkia. Ez dago asko erabilia. 50 euro. Lourdes Isasi. Tel.: 699 45 43 69

Higiezinak
GARAJE/TRASTEROAK

SALDU

Donostia. Donostia - Antiguon - Errotaburu. Garaje itxia salgai. Kotxea sartzeko eta trastero moduan erabil daiteke. Prezioa: 24000 Telefonoa: 608 0196 93

INMOBILIARIAK



Saibigain, 11 barnera F. J. de Zumarraga kalea
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • ietretxo@hotmail.com

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000€-tik aurrera.
- Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000€.
- Iurretako: Maspe: ERAIKUNTZA BERRIA. 2, 3, 4, eta logela bakarrekoak.
- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Fray Juan de Zumarraga: Berria. 35 milioi.
 - Jose Antonio Aguirre: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Kanpora ematen du. Terraza.
 - Komentu kalea: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Azkeneko solairua.
 - Fray Juan de Zumarraga: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
 - Erretentxu: 85 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara.
 - San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
 - Abasolo: 100 m2. 3 logela. Igogailua. Berogailua.
 - Ermodo: 3 logela. Igogailua. 210.000€.
 - Landako: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi.
 - Durango: Bizitzaren sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300€ (26 mill.).
 - Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000€
 - Zeharmendieta: 3 logela. 143.000€.
 - Madalenoste: 90 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
 - Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
 - Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
 - Tabira / Arriluzeta: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
 - Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
 - Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzaren sartzeko moduan.
 - Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. 2 logela. Terraza.
 - Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin.
- IURRETA**
- Bidebarrieta: 3 logela eta egongela handia. Terraza. Igogailua. 213.400€.
 - Uralde: 3 logela. Igogailua. Trasteleku. 188.800€.
 - Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000€.
 - Askondo: 3 logela. Terraza. Igogailua. Garajea aukeran. Pisu altua. 192.400€.
- GARAJEAK SALGAI**
- Matxinestarta: Salgai.
 - Ibaizabal: Garaje itxia. Salgai.
 - Antso Eztegi: 24.800€.
 - Erretentxu: Salgai. 18.000€.
 - Jesuitas: Salgai. 25.000€.
 - Alokairuan: 50€-tik hasita.
 - Barandiaran: Alokairuan.
- ETXEBIZITZAK ALOKAIKURUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK, KONTSULTATU...**



San Agustinalde, 4 - 1.º Etx. DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700€ hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Zeharkale: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukalde, egongela-jantokia eta komuna.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Kanpatorrosteta: 3 logela. 70 m2-ko terraza. 28 m2-ko garajea.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, garajea eta trasteleku. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Leku onean.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLExA. Eraiki berriak.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezio adosteko prest.

MALLABIA

- Trabakua: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatzeko. Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trasteleku – txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.



Fernando Uribe


Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txaleta bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Komentu kalea: Halla, sukalde, egongela-jangela, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Monago Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trasteleku.
- Monteideo: Halla, egongela-jangela, sukalde, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trasteleku.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukalde, egongela-jangela, 3 logela eta 1/2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trasteleku.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trasteleku. Erdi jantzia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.
- Abadiño-Matiena: Halla, sukalde, egongela, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Abadiño: 3 solairutako etxebizitza berriztatzeko.
- Abadiño- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria oso egoera onean.
- Bedia: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Berrikuntzekin.
- Berriz: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trasteleku.
- Berriz: Duplexa. Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta Trasteleku.
- Berriz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara. Eguzkitsua eta etxe osoak kanpora ematen du.
- Elorrio: Halla, sukalde, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trasteleku eta garajea.




Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbarekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbarekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbarekin 350.000€+ BEZ
- Tabira: Logela bakarreko apartamentuak. Ganbarekin.
- Pagasari kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Pagasari kalea: 93 m2 –ko atikoa. Etxe osoak kanpora ematen du. 75 m2 –ko terraza. Erdi berria. Berrikuntzekin. Garaje bikoitz itxia eta trasteleku.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
- Durangaldea: Txaleta hainbat herritan.
- Durangaldea: Baserriak, pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldeetan, salgai edo alokairuan.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trasteleku.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Alluitz – Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Txibitena: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- Zumalakarregi – Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Garaje aeta trasteleku.
- Tabira: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. 2 balkoi.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Bukaera ▼	Irtenbide ▼	Estalki mota
Jipoitu		Kitto!	
▶		▼	▼
Ahuntzaren ar	▶		
Eraikuntza material			
Talaiak ▼	Arabako eskualdea		
Sartalde	Zabalak, lasaiak		
▶	▼		
* Irudiko Taldea			
Kirol jokaldi			
▶			Idi, hitz elkarketan
▶			Etxalarko auzoa
... gabe, etengabe		Poesia mota	▶
Lepoko, idunekoa		Denbora	▼
▶			
			Uhartea
Aurkitu			Iodoa
Heuk			Zain
▶		Atziki handigarria	▼
		Kriptona	
Bokala	Adore gutxiko		
Arrain mota	Bokala		
▶	▼		

SUDOKU >

1

2	8		3	9		5	7
			5	2			
5						4	9
1	6	7				3	4
			4	3	9	1	
	4	7				2	8
3	4			6	8	7	
	2	1					8
			2	5	7		3

2

			9	6	8	7	
	2	8					
				4		6	
	4	7	9			8	3
			3			7	2
5	9						
	5	9					
			2		1		9
3			7			4	

1	3	2	5	7	9	6	4	8
7	8	6	2	3	1	5	7	4
4	5	6	1	8	3	2	7	9
5	9	3	7	8	2	4	1	6
8	6	1	3	4	5	7	9	2
2	4	7	6	1	5	8	3	9
9	7	5	8	3	4	2	6	1
6	2	8	1	5	7	9	3	4
3	1	4	2	9	6	8	7	5

2

6	9	8	2	5	7	1	3	4
7	2	1	4	3	9	6	5	8
3	4	5	1	6	8	7	2	9
9	3	4	7	1	5	2	8	6
8	5	2	6	4	3	9	1	7
1	6	7	9	8	2	3	4	5
5	1	3	8	7	6	4	9	2
4	7	9	5	2	1	8	6	3
2	8	6	3	9	4	5	7	1

A	O	I	A	R	A	K	I
L	I	K	I	K	•	A	•
R	Z	T	•	K	I	H	•
I	•	S	I	U	A	K	•
•	E	R	E	L	A	K	•
A	•	O	D	A	•	T	•
I	•	E	A	S	E	P	•
B	I	R	O	B	I	H	•
A	R	A	L	B	A	L	•
A	I	A	R	A	•	B	•
•	•	•	•	•	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•
•	•	•	•	•	•	•	•

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Apirilaren 8an jaio zen argazkiko mutikotxo hau **Alex** da. Zorionak eta musu haundi bat bere aita Eloi eta ama Rakeli. Ongi etorri familiara!




Zorionak **Aimar**! Zorionak futbolzale eta Messiren fana den txiki honi, Carmen, Carmen txiki eta Romanen partez! Ondo pasa zure urtebetetze egunean!



Zorionak **Malen** zure bosgarren urtebetetzean. Etxeko lauron partez, belarritik tirakada batzuk eta musu potoloak zuretzat. Ondo pasa zure egunean!



Zorionak **Jon**! Apirilak 20an 18 urte beteko dituzu! Laster kotxeagaz ikusiko zaitugu, ala? Musu handi bat Jauritxikitik, batez ere, zure lehengusinen partez!



Zorionak **Xabat**! Zapatuan zazpi urtetxo egingo dituzu! Ondo ospatu zure eguna, eta musu handi handi bat, Jauritxikitik, batez ere, Amaiur eta Uxuen partez!



Zorionak **Urdax**, bihotzez, aitaxo eta amatxon partez. Zure lehen urtebetetze eguna disfruta dezazula. Patxo handi bat!



Osaba, aitaxo, lagun eta lagunaren lagun den **Joseba Murgoitio** 42 urte egingo ditu apirilaren 17an. Musu haundi bat, denon partez! Guapo! Zorionak familiararen partez eta, bereziki, argazkian ikusten den zure alaba Aneren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia ematea.

Zorionak **Iurgi Garrori**. Aste honetan zotz egin dugun tarta zeuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu.

HOROSKOPOA >



Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Aspaldiko partez familia giroan izan zara kontu kontari. Urteak ospatzeko zer edo zer berezia egiteko asmoak beteko dira azkenean.



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Zeure neurriko beharra aurkitu duzula ematen du, baina ez zaude guztiz konbentzita.



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Aste honetan hainbeste denboran itxaron duzuna beteko da. Esperantza da galtzen azkena; oraingoan, behintzat, horrela izan da.



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Albiste ona jaso duzu orain dela gutxi, baina ez duzu ingurukoekin partekatzen. Gertatuak gertatu, on edo txar, zu beti berdin.



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Ezustekoa jasoko duzu aste honetan, baina erantzuten jakingo duzu. Orain arte egindakoa ez da alferrikakoa izango.



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Aspaldi ikusi ez duzun lagunari deitzea ez da ezer kostatzen. Berak ere faltan botako zaitu, baten batek eman behar du lehenengo pausoa.



Libra
irailak 24 - urriak 23

Itxaropen guztia jarri duzu ondo irten dadin, baina ez da horrela gertatu. Ez da zuk itxaroten zenuena. Beste era batean saiatu.



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Bikoteagaz amaitzeaz, txarto zabilta aspaldian, beraz, ez zaude festa askotarako. Egoerari buelta emango diozu laster.



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Nahi duzuna lortzeko saiakera egiteko momentu aproposa da. Inguruko lagunak ere jasoko duzu.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Ekonomikoki ez da momentu egokiena zuretzat. Baina laster proiektu berri bati ekingo diozu, eta egoerak hobera egingo du.



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18


Bikoteagaz denbora gehiago igaro beharko zenuke, aspaldian bakarrik edo lagunekin egotea gurago izaten duzu. Bikoteak igartzen du.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Bidean utzitako lagunaren bat zure bizitzara bueltatuko da laster, eta aukera berriak izango dituzu.

OSASUN GIDA



AKUPUNTURA



MINKENDU


AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • **HIDROLINFA**
Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor
Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango
tf. 619 17 61 53

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO
tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Urmeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz
tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

“Euskara berreskuratu nuelako izan nuen telebistan lan egiteko aukera”

Zapatuan Zaldibarrera etorriko da Julian lantzi, euskaragaz lotutako bere bizipenak kontatzera

Euskaraz berba egiteko gaitasuna galdu egin zuen Julian lantzi, baina orain lanerako eta seme-alabei berba egiteko erabiltzen du bere ama-hizkuntza. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko berbaldiak ematen dabil azken aldian. Zaldibarren egongo da zapatu honetan, euskaragaz izan dituen bizipenak kontatzen. Gaztelekuan, 17:00etan da hitzordua.

Zure ama-hizkuntza euskarada, baina ez zenuen Euskal Herrian ikasi.

Nahiz eta Ameriketara yankeez inguraturik bizi, gurasoek euskara eta euskal kultura transmititu zidaten, eta euskaraz bustita pasatu nuen nire haurtzaroa. Nik gauza bera egin dut nire seme-alabekin, eta gazteei esaten diet, eurek ez badute ikasten zaila izango dutela seme-alabei erakustea.

Mutikotan etorri zinen Euskal Herrira. Aldea igarri zenuen Estatu Batuetatik Lesakara?

Estatu Batuetatik etorri nintzanean, 7-8

urterekin, nahi bai, baina ezin nuen Lesakan euskaraz hitz egin. Diktadura bukatzeaz zegoela etorri nintzen, eta urte gogorak izan ziren. Etorri nintzanean gaztelaraz ez nekien, eta eskolan izugarriko arazoak izan nituen. Zigortu egiten ninduten gaztelera ez nuelako ulertzen. Paradoxa da. Euskal Herriatik kanpo euskaraz bizi, eta hona etorri eta hemen nahi eta ezin izatea. Gero gaztelera ikasi nuen, eta euskara gero eta gutxiago erabiltzen hasi nintzen. Gaur egun gazteei pasatzen zaienaren antzekoa pasatu zitzaidan. Gazteek euskararen ezagutza badaukate, baina ez dutenez erabiltzen, hitz egiteko gaitasuna galtzen

dute. Hori gertatu zitzaidan niri. Konturatu gabe euskara poliki-poliki uzten hasi nintzen, eta heldu zen momentu bat buruan nukan ideia ezin nuela euskaraz ahoz pasatu. Orduan euskaltegira joan nintzen, galdutako hori berreskuratzeko. Eta begira gauzak zer diren, euskara berreskuratu nuelako izan nuen telebistan hasteko aukera.

Euskaraz berba egin ezin zenuelako galdu zenuen euskara zuk. Gazteek, oster, aukera hori badaukate.

Bai, eta hitzaldietan esan didatez, ohituragatik hitz egiten dute gaztelaraz. Erosoago sentitzen direla diote. Pixkanaka ohi-turak aldatzen hasteko esaten diet; mugikorrak, mezuak,

emailak... euskaraz bidaltzen hasteko. Idazteak asko laguntzen du hizkuntza baten maila hobetzen. Gaur

egun ez dute inolako aitzakiarik, nahi izanez gero aukera asko dituzte euskaraz bizitzeko. 39 urtean frankismoak egin duen kaltea ez dugu 35 urtetan berreskuratu, baina aurrerapausoak eman dira. Egunkaria euskaraz, euskarazko liburuak irakurri... egunero egiten dituzten gauza txikiak euskaraz egiten hasten badira, poliki-poliki erosoago sentituko dira euskaraz.

Konplexu barik ibiltzea da kontua, azkenean.

Bai, eta norberaren euskara aintzathartzea. Gogoratzen dut behin Lekeition izan nintzela emakume nagusi bati elkarrizketa egiteko. Aurretik solasean ibili ginen, eta elkarrizketa formala egin behar genuela esan nionean, “Ez, ez, nik ez dakit euskaraz, nire euskara ez da zuena modukoa” esan zidan. Benetako euskara lekuan lekukoa da, eta oso aberatsa da horretan gure hizkuntza. Gauzak esateko modu asko daude. Adibidez, “gaur atsaldin guatzera banoie” esaten badut, zer esan nahi dut?

Ba gaur arratsaldean nonora zoazela, baina nora... nork jakin!

Hasieratik gaizki zabilta! “Gaur gauean ohera noa” esan nahi du horrek nafarreraz. Hor dago gure hizkuntzaren aberastasuna. Gure aita Ameriketara artzain bizitakoa da, eta han bizkaitarrekin, zuberotarrekin... ibiltzen zen. Euskaraz hitz egin nahi eta ez zuten elkar ulertzen hasieran. Elko Nevadan azkenean euren artean euskara bat sortu zuten denek elkar ulertzeko. Diote hori dela benetako euskara batua. Nafarrek erdi-bizkaitar, erdi-iparraldeko egiten dute, eta alderantziz. Oso gauza bitxia baina aberasgarria da.



Iñaki Sánchez Irakaslea

Disoziazioa

Jose María Castillo teologoak azaldu bezala, historian burmuinaren funtzionamendua eta eskuarena bat etorri izan dira: burmuinak errealitatea aztertzekeo abiadura eta eskuak teknologiaren bidez errealitatean eragiteko abiadura erlazio logikoan zeuden. Azken urteotan, teknologiak oso erritmo bizia hartu du, zientziaren usteko ahalmen infinitoa hedatuz. Burua arin eta eskua arinago; sarritan buruak ezin jakin eskua zertan ari den. Hala ere, aurrerapen teknologikoei abantaila asko ekartzearekin batera, bizimodua guztiz erraztu digute; ezin da ukatu.

Baina, badakigu arnasa aparatuek erritmo pausatua duela; badakigu pentsatzeko eta, azken batean, bizi ahal izateko denbora behar dugula; eta badakigu, baita ere, laguna besarkatu eta laztantzeko patxada eta lasaitasuna behar-beharrezkoak direla. Gizakia gizakia denetik, lehenengo aldiz, bihotzak, burmuinak eta eskuak nork bere aldetik jotzen dute, disoziazioaren fenomenoaren sortuz. Hiru norabide norabide bakarreko bidean. Gero eta arinago, gero eta baliabide gehiago, gero eta... eta helmugatik gero eta urrunago. Aurrerapen teknologikoa ez da arazo. Gakoa da nola eta zertarako erabili. Laster, teknologiarekiko aldea murrizteko, burmuinean txipa jarriko digute, geure izate gizatiarrarengandik aldentuz. Zer zapore du musu teknologikoa?

Laster, teknologiarekiko aldea murrizteko, burmuinean txipa jarriko digute



Julian lantzi

43 urte ditu

Telebistan ikusi dugu aurkezle lanetan

maristak
ikastetxea · Durango

ATE IREKIAK

Apirilak 21 - 18:00-20:00

‘Batxilergoak eta Zikloak’

informazio gehiago

www.maristak.com • 94 681 00 58

Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia

san-jose@maristak.com

Euskadi



HETEL